

**EUSKO JAURLARITZAREN KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA
NAGUSIAREN TXOSTENA, EUSKAL ERAKUNDEEK EUROPAR
BATASUNEAN EGITEN DITUZTEN JARDUNEI BURUZKOA**

2017ko abendua

AURKIBIDEA

I. TXOSTEN HONEN ZERGATIA

II. EUOPAR BATASUNAREN GAUR EGUNGO TESTUINGURUA

III. EUSKAL ERAKUNDEEK 2016. URTEAN ZEHAR EUOPAR BATASUNEAN EGINDAKO JARDUNAK

III.1. Eskualdeetako Lantaldea eta Euskadik bertan duen parte hartzea

III.2. Euskadik Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordearen Lantaldeetan duen parte hartzea

III.3. Jaurlaritzaren egintzatik eratorrita EBn egindako jardunak:

1. Bisita instituzionalak
2. Euskadiren hainbat alderdik Europan duten proiektzioa eta Europako Erkidegoan gaurkotasunezkoak diren gaietan Euskal Autonomia Erkidegoak duen posizionamendua
3. Bestelako bisita eta topaketa batzuk
4. Esku hartzeak konferentzia zein eztabaidetan Informazioa ardatz duten ekimenak zein bilerak antolatzea eta horietan parte hartzea
5. EBrekin zerikusia duten sareetan, erakundeetan eta foroetan egindako lana
6. Europako Erkidegoko Zuzenbideari buruzko espedienteak jakinaraztea eta horien berri ematea
7. Europako Erkidegoko gaien berri ematea eta zabaltzea

IV. MUGAZ HARAINDIKO LANKIDETZA GAIETAN EGINDAKO JARDUNAK

V. ETORKIZUNEAN GAUZATU BEHARREKO JARDUNEN PROPOSAMENAK

A. Zeharkako esparruko proposamenak

B. Arlo sektorialetako proposamenak

I. TXOSTEN HONEN ZERGATIA

2013ko azaroan, Euskadiko Alderdi Popularrak legez besteko hasierako proposamen bat aurkeztu zuen, Eusko Jaurlaritzak Euskadiren eta Europaren berri emateko jakinarazpen bat osatzeari eta osoko bilkura monografiko bat egiteari buruzkoa.

Azkenean, Eusko Alderdi Jeltzaleak, Euskadiko Sozialistek eta Euskadiko Alderdi Popularrak arestian aipatutako legez besteko proposamenari zuzenketa transakzional bat jartzea hitzartu zuten. Hauxe xedatzen du:

“Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio euskal erakundeek Europar Batasunean egindako jardunei buruzko jakinarazpen bat osatzeko, eta Ganberara igortzeko, hurrengo saioretan zehar osoko bilkuran edo batzordean eztabaida dezaten. Jakinarazpen horretan egoeraren analisia eta jardun proposamen batzuk bildu beharke dira, eta bereziki aipatu beharke da 2013an Europar txertatzeko prozesuan emandako aurrerapausoekin lotuta gauzatutako guztia.

Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2014tik aurrera Ganberara igortzeko urte guztien hasieran euskal erakundeek Europar Batasunean egindako jarduera eta jardunari buruzko urteko jakinarazpena, osoko bilkuran edo batzordean eztabaidatzeko”.

2014ko irailean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak txosten bat aurkeztu zion Ganberari, non bilduta ageri ziren 2013. urtean zehar euskal erakundeek Europar Batasunean egindako jarduera garrantzitsuenak. Txosten horren eraginez, gainera, agerraldia egin zen, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak halaxe eskatuta.

2015eko urrian, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak beste txosten bat aurkeztu zuen, 2014an euskal erakundeek Europar Batasunean gauzatutako jarduera garrantzitsuenak biltzen zituen. Kasu horretan ere, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak agerraldia egin behar izan zuen Eusko Legebiltzarreko Europako Gaien eta Kanpo Harremanen Batzordearen aurrean.

2016an beste txosten bat egin zen, 2015eko jarduerak biltzeko. Azkenean, hauteskunde arrazoiak zirela tarteko, txostena ez zen igorri Legebiltzarrera. 2017. urtea dugu, hain zuzen, XI. Legegintzaldiaren lehenengo urtea, eta berriro heldu diogu 2016an zehar Europar Batasunean egindako jardunei buruzko informazioa Eusko Legebiltzarrera helarazteko zereginari.

Jardunei beren horretan heldu aurretik, Europar Batasunak 2016an zeukan testuinguruari egiten zaio aipamen txiki bat. Horrek, jakina, euskal erakundeek EBn egindako jardunak azaltzen lagunduko digu. Eta txostenaren amaieran, etorkizunean gauza daitezkeen jardunen proposamen batzuk ageri dira.

II. EUOPAR BATASUNAREN GAUR EGUNGO TESTUINGURUA

Brexita

Erresuma Batuak Europar Batasunean jarraitu ala ez erabakitzeko 2016ko ekainaren 23an egindako erreferendumean hartutako erabakia dugu (herritarren % 71,8k parte hartu zuten, eta % 51,9k aldeko botoa eta % 48,1ek aurkakoa bozkatu zuten), zalantzarik gabe, urte horretan ez ezik, ziur asko baita EBren historia osoan zehar ere, jazotako gertakaririk garrantzitsuenetako bat. Erresuma Batua da EBn pisu politiko eta ekonomiko handieneko herrialdeetako bat, eta hark hartutako erabakiak aztoratu egin du EBren eta bertako erakundeen erritmoa, eta prozedura bat abian jartzea eragin du. Prozedura hori tratatuetan aurreikusita egonagatik, ezezaguna da oraindik, ez baitu aurrekaririk. Aurreneko aldia da estatu kide batek Europar Batasuna uztea erabakitzen duela.

Erresuma Batuaren alde egiteari “Brexita” deitu izan zaio modu informalean. Horrek ondorio politiko, ekonomiko eta sozial ugari ekarriko ditu, nahiz eta horien irismena ezin jakin dezakegun. Hala, EBko erakundeak eta estatu kideetako gobernuak, bai eta estatu barneko gobernuak ere, derrigortuta daude hainbat neurri hartzera, 2019ko martxotik aurrera (aurreikusita dago data horretan egingo duela alde behin betiko) eragin horrek ahalik eta ondorio txikiena izan dezan euren herritarrengan, enpresetan zein interesetan.

Erreferendumaren emaitzarekin, ziurgabetasunez, egongaitzasunez eta EBri buruzko zalantzaz betetako denboraldia etorri zen. Europako agintaritzek, beraz, aurrekaririk gabeko erronka bati egin beharko diote aurre. Eta, horrenbestez, European txertatzeko prozesuarentzako aukera bat hauteman daiteke, nahiz eta zalantza ugari dauden Europa osatzeko proiektuaren etorkizunari buruz.

Aldi berean, baina, Erresuma Batua erkidegotik ateratzeak batasunerako eta gogoetarako deia egin du. 2016ko ekainaren 28an eta 29an, egun batzuk lehenagoko erreferendumaren emaitza dela-eta Kontseilu Europarrak egindako bileran, EBko 27 buruek argi eta garbi adierazi zuten elkarrekin eta lankidetzan estuan jarraitzeko asmoa zutela. Bilera baliagarria izan zen, halaber, 27 estatu kidez osatutako Europar Batasunaren etorkizunari buruz eztabaidatzeko.

Hilabete batzuen buruan, irailean, Bratislavako goi bilera egin zen. Bertan, 27 estatuek EBren egoerari buruzko diagnostikoa osatu zuten, eta ibilbide orri bat onartu zuten, etorkizunari begira honako helburu hauek finkatzen dituen:

Migrazioa

2016. urtean inoiz baino pertsona gehiago hil dira Mediterraneoan: 5.000tik gora pertsona ito dira Europara iristeko ahaleginetan.

2016an ere, Siriatik eta beste herrialde batzuetatik ihesi zetozen errefuxiatuei zein migratzaileei harrera egiten jarraitu du EBk. Eurostaten arabera, milioitik gora pertsonak eskatu zuten nazioarteko babesaren EBn 2015ean. 2016. urtea amaitzerako, seguru asko, kopurua handiagoa izango da. Hala, nazioarteko babesaren behar duten 160.000 pertsona Italiatik eta Greziatik EBko beste estatu kide batzuetan berrezartzeko eta hirugarren herrialde bateko 22.504 pertsona EBko estatu kideren batean birkokatzeko konpromisoa hartu du EBk. Konpromiso horiek betetzeko epea 2017an amaituko da. Birkokapenaren arloko betebeharrak guztiak betetzen ari dira estatuak; ez, ordea, berrezarpenaren arlokoak.

2016ko martxoan, EB-Turkia goi bileran, Adierazpen baten bidez, Turkiatik greziar uharteetara igarotzen ziren migratzaile berri irregularrak guztiak itzularaztea erabaki zen, eta EB egingo zen kostuen kargu. Era berean, erabaki zen Turkiak greziar uharteetan berronartutako siriarrak bakoitzeko Turkiatik etorritako beste siriarrak bat birkokatzeko EBko estatu kideren batean (1:1 birkokapen programa). Hala, EBk lan egin du EB-Turkia akordio hau abian jartzeko, nazioarteko babesaren behar duten pertsonen legezko bide seguruak eskaintzeko asmoz eta, hala, migratzaileen trafikoa eta salerosketa amaitzeko. Adierazpenaren arabera, Turkiari 3.000 milioi € emateko konpromisoa onartu zuen EBk.

Akordio horrek, beraz, berretsi egin zuen ezaugarri horiei dagokienez Turkia hirugarren herrialderik seguruena zela adieraziz EBk zeukan iritzia. EBk horrekin lotuta zeukan ikuspegiaren arabera, asilo bila Egeo itsasoa zeharkatu, eta greziar kostaldeetara iristen zirenek otomandar herrialdean eskatu behar zuten asiloa. GKE ugari erantzun zioten Adierazpenari, esanez Turkiak ez zituela betetzen herrialde segurutzat jotzeko beharrezkoak diren baldintzak; eta, horrenbestez, legez kanpoko etorkinak itzultzeak nazioarteko, Europako Erkidegoko eta nazioko legedia urratzea zekarrela.

Siriako gerra eta horrek eragindako 22 milioi pertsonaren lekualdatzea aintzat hartuta, Europar Batasunak salbuespena egin zuen Siriatik zetozen etorkinekin. Birkokapenaren esparruan, Turkiara itzularazitako siriarrak bakoitzeko, Turkian egiaztatutako siriarrak bati harrera egingo zitzaion lege prozeduren bitartez Europar Batasunean (1:1 birkokatzeko programa).

EB-Turkia Adierazpenari buruzko azalpenak Bratislavako goi bileran eman zituzten gerora, EBko Kontseiluaren Eslovakiako presidentetzaren lankidetzarekin. 2016ko irailean Bratislavan finkatutako ibilbide orrian, migrazio fluxuen gaineko kontrola izan zen ardatz nagusietako bat, migratzaile kopurua murrizteko asmoz; eta neurri zehatzen artean, EB-Turkia Adierazpenaren xedatutakoa aplikatzeko konpromiso irmoa ageri zen. Birkokapen datuei erreparaturik gero, 2017ko otsailean Turkiatik etorritako 3.565 siriarrak errefuxiatu birkokatu dira EBn; era berean, Turkiatik zehar Greziara iritsitako 1.487 migratzaile irregularrak itzularazi dira herrialde horretara.

Bestalde, akordioa abian jarri izanaren ondorioz, etorkinek erabaki dute beste ibilbide batzuk baliatzea Europara iristeko. Libiatik abiatzen den Mediterraneo erdiguneko ibilbidea izan da parte hartzeari dagokionez hazkunde handiena izan duena, nahiz eta arriskutsuenetako bat izan.

Era berean, Mugen eta Kosten Europako Agentzia sortu da, bizitzak salbatzeko, mugetan segurtasuna bermatzeko eta asilo bila Europako kostaldeetara iristen diren pertsonen arreta eskaintzeko. Agentzia horren zereginak 2016ko udazkenean jarri ziren martxan. Mugako talde hau behin betiko onartu zen, hain zuzen, FRONTExen eraginkortasun ezak eta estatu kideek nazioarteko babesa behar zuten 160.000 pertsonak berrezartzeko konpromiso gabeziak bultzatuta. Agentzia berri horretan mugen kudeaketarako nazioko agintaritzak daude, eta FRONTExek bere kargu zituen funtzio gehigarri batzuk ere baditu.

Egiazko Asilorako Sistema Komun Europar bat lortzeko legegintza erreforma batzuk ere proposatu dira. Horietako bat, hain zuzen, EBko Birkokapen Esparru iraunkor bat sortzea da, birkokapenerako hautagaiak aukeratzeko prozedura normalizatu bateratua eta EBn birkokatutako pertsonentzako babes estatutu bateratua ezartzeko. Europako Parlamentutik defendatzen da birkokapenak Europara iristeko beste legezko bide batzuekin osatzea; esaterako, familia bateratuz, bisa humanitarioak, onespen humanitariorako programak zein programa pribatuak. Hain da horrela, Italian zein Frantzian, gizarte zibileko erakundeek, bi herrialdeetako gobernuekin egindako akordioei esker, korridore humanitarioak jarri dituztela martxan Libanotik Etiopiara, bisa humanitarioen bitartez.

Europako Batzordeak, era berean, Schengeneko Bisa Kodea berritzea proposatu zuen 2016ko martxoan, arrazoi humanitarioak direla tarteko bisa humanitarioak eskatzen dituzten pertsonen era horretako bisak emateko aukera aurreikusteko. Bisa kodeen berrikuspen hau, beraz, lege oinarri bat izango da hainbat herrialdetan (Frantzian eta Italian, kasu), korridore humanitarioak abiarazteko helburuarekin. *Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, dena den, estatu kideek bisa humanitarioak emateko derrigortasunaren aurkako erabakia eman zuen 2017ko martxoan. Horren eraginez, estatu kideek aukera dute bisak emateari uko egiteko, baita eskatzaileek torturak eta tratu iraingarriak jasotzeko arrisku argia dagoenean ere.*

Terrorismoa

Terrorismo islamikoa mehatxu handia izan da 2016an ere, EBko segurtasunari dagokionez. Europako kontinenteak eraso terrorista ugari jasan ditu, hainbat estatu kidetan egindako ekintzengatik. Martxoaren 22an Bruselan (35 hildako), uztailaren 14an Nizan (85 hildako) eta abenduaren 19an Berlinen (11 hildako) gertatutakoak izan dira larrienak.

Eraso terroristek, batetik, eta errefuxiatuak zein etorkinak samaldan iritsi izanak, bestetik, segurtasunik gabeko giroa sortu dute eta, horren eraginez, Schengen eremuko hainbat herrialdek (Frantziak, Alemaniak, Belgikak edo Suediak, esaterako) berriz ezarri behar izan dituzte, aldi baterako bada ere, kontrolak mugetan.

EB ahalegindu da Schengen esparruan normaltasuna izatea berriro eta, horretarako, beharrezkoa da EBren kanpo mugen kudeaketa eraginkorra izatea. Horrekin lotuta, irailaren 14an, arestian esandakoarekin bat etorruta, Kontseiluak azken onarpena eman zion

Mugen eta Kosten Europako Agentziari. Agentzia horren egiteko nagusia da, hain zuzen, kanpo mugen kudeaketa integratua gauzatzea, migrazio fluxuei modu eraginkorrean erantzun ahal izateko eta EB barnean segurtasun maila handia bermatzeko.

Mehatxu terroristari aurre egiteko onartutako beste neurrietako bat, hain justu, Poliziaren Europako Bulegoak (Europol) Terrorismoaren Kontrako Europako Zentro berria sortzea izan da. Zentro horren helburua da, zehazki, estatu kideen segurtasun erakundeen arteko informazio trukea eta koordinazio operatiboa hobetzea.

Ekonomia

2016an eurogunearen garapenak % 1,7ko hazkunde txikia izan zuen, 2015. urtean baino hamarren bat handiagoa. Europar Batasun osoaren baitan ekonomiak % 1,9ko hazkundera izan zuen. Era berean, 2009az gero eurogunean erregistratutako langabezia tasarik txikiena 2016ko abendukoa izan zen: hain zuzen, % 9,6ko langabezia tasa. EB osoan, % 8,6koa izan zen langabezia tasa.

Eurotaldea lau aldiz bildu zen 2016an, eta euroguneako ekonomian eragina zuten hainbat gairi buruzko ondorioak atera zituen. 2016ko maiatzean, Eurotaldea pozik zegoen Greziaren eta Europako Erkidegoko erakundeen arteko administrazio akordioa zela tarteko. Akordio horren arabera, Europako Egonkortasun Mekanismoak Greziarentzako finantza laguntza desblokeatuko luke (10.300 milioi euro).

Urte bereko uztailan, Eurotaldearen esku geratu zen euroguneako finantza eta ekonomia egoera lantzeko zeregina, baita Egonkortasun eta Hazkunde Ituna lantzekoa ere. Hori aplikatzeak halabarrez zekarren Espainiak eta Portugalek izandako defizitak arintzeko neurriak hartzea. Iraganean aurrekontu portaera ezegokiak egin izanagatik bi estatu horiei euren gehiegizko defizita zuzen zezaten isuna jartzeko mehatxua egin ondoren, azkenean, Batzordeak isuna ezeztatzeko emandako gomendioari jarraitu zion Kontseiluak. Era berean, martxo bukaeran, Ziprek hiru urteko bere doikuntza programa amaitu zuen, eta 2016an greziar programa aplikatzen jarraitu zuen.

Euroguneako bateratasun ekonomikoa eta egonkortasuna da, oraindik ere, EBk duen erronka nagusietako bat. Horrekin lotuta, europar agintaritzek gizarte politikak eta enplegu politikak indartzeko konpromisoa hartu dute, Europako Ekonomia eta Diru Batasuna osatzeko eta, hala, euroguneako egonkortasunean eragina duten desorekak desagerrarazteko.

Era berean, 2016an, EBren gobernantza ekonomikoa indartu egin da, Europako Zerga Kontseilua sortuta. Kontsultarako kontseilu independentea da. Hala, bost presidenteen txostenean jasotako proposamena praktikan jarri da, EBren aurrekontu esparruaren aplikazioa ebaluatzeko eta Batzordeari euroguneako aurrekontu politika egokiari buruzko gomendioak emateko.

Gainera, Banku Batasuna lortzeko bidean jarraitu du lanean EBk.

Gizarte politikak

2016an, Europako Batzordeak kontsulta publiko bat egin zuen, EBren gaur egungo gizarte ondarearen egoera ebaluatzeko, lan eta gizarte ereduaren joera berriei buruzko gogoeta egiteko, eta Gizarte Eskubideen Europako Oinarriaren lehenengo zirriborroan Batzordeak identifikatutako printzipioei buruzko ekarpenak eta ikuspegiak biltzeko. Oinarri horrek, beraz, lan merkaturako aukera eta sarbide gaietan, bidezko lan baldintza gaietan eta gizarte babes egokiarekin eta jasangarriarekin lotutako gaietan funtsezkoak diren printzipio batzuk finkatuko ditu.

Urtarrilean, Batzordeak zerga saihestearen aurkako hainbat legegintza neurri aurkeztu zituen. Neurri horietako baten arabera, estatu kideetako zerga administrazioek EBn diharduten enpresa multinazionaleri buruzko zerga informazioa trukatu behar dute euren artean. Neurri hori martxoan onartu zuen Kontseiluak. Beste neurrietako bat, berriz, zerga saihestearen aurkako borrokari buruzko zuzentaraua da, eta uztailan onartu zuen Kontseiluak.

Apirilean, Batzordeak EBn BEZa modernizatzeko neurriak aurkeztu zituen; alegia, iruzurraren aurka egitean, enpresei babesa ematean eta ekonomia digitalari zein merkataritza elektronikolari laguntzean oinarritutako neurriak. Era berean, Batzordeak, urrian, bultzada berria eman zion sozietateen gaineko zergaren zerga oinarri kontsolidatu arruntari buruzko legegintza proposamenari, eta proposatu zuen enpresek merkatu bateratuan zergapetzeko modua aldatzea, sozietateen gaineko zergaren sistema lehiakorragoa eta hazkundera ekarriko duena bermatzeko.

Kohesio politika

2016. urteko ezaugarri nagusia Espainiari eta Portugali egitura funtsak eteteko mehatxua izan zen, arestian aipatu bezalaxe, iraganean aurrekontu portaera ezegokiak izan zituztelako eta gehiegizko defizita zeukatelako. Azkenean, Batzordeak erabaki zuen funtsak ez etetea.

Politika komertziala

Krisi ekonomikoaren eraginez, zalantzan jarri izan dira geroz eta handiagoa den desberdinkeria, langabeziaren gorakada eta nazioarteko merkataritzaren onurak. Merkataritza askeko akordioen aurkako mugimendu protekzionistek geroz eta indar handiagoa dute, eta oztopatu egin dute EBren politika komertziala. Unerik korapilatsuen izan zuen, zehazki, Kanadarekin merkataritza askeko tratatua negoziatzean (CETA - Comprehensive Economic and Trade Agreement).

Valoniako belgikar eskualdeko parlamentuak uko egin zionez, hasiera batean, blokeatuta geratu zen akordio komertziala onartzearena. Azkenean, Valoniako eskualdeak betoa altxatu zuen eta, hala, akordioa abian jartzeko prozesuak aurrera egin ahal izan zuen. Behin

akordioa onartuta, beharrezkoa da Europar Batasuneko herrialdeetako parlamentu nazional guztiek berrestea (baita eskualdeetakoek ere, Valoniaren kasuak erakutsi bezalaxe).

EBk orain artean sinatutako akordio komertzial aurreratuena da hori, etorkizunean EBk beste herrialde batzuekin negoziatuko dituen akordio komertzialetan erreferente izango dena. Era berean, inbertsio epaitegien sistema bat sortzeko proposamen bat aurkeztu zuen Batzordeak; hots, Kanadarekin eta Vietnamekin egindako akordioan aurreikusitako sistemaren antzekoa, epaitegi nazional eta nazioartekoek ezaugarri nagusi berberak dituena.

Bestalde, 2016an, Batzordeak defentsa komertzialerako tresnak erabili ditu, EBko ekoizleentzako bidezko lehia baldintza jakin batzuk bermatzeko, eta atzerriko lehia desleialak eragindako kalteei aurre egiteko; batez ere, siderurgiaren arloan, lanpostu ugariren galera ekarri baitu. Horrekin lotuta, Batzordeak dumping-ari aurre egiteko eta diru laguntzen aurkako neurriak aplikatu ditu (41, produktu siderurgikoei buruzkoak; horien artean, Txinatik datozen produktuei buruzko 18).

2016an, EBk Estatu Batuekin negoziatuz jarraitu zuen Merkataritza eta Inbertsiorako Akordio Transatlantikoa (TTIP - Transatlantic Trade and Investment Partnership) sinatzeko, nahiz eta Estatu Batuetako presidente berriarekin, negoziazioak gelditu dauden.

Kanpo politika

Ekainaren 28 eta 29ko Kontseilu Europarrean, Federica Mogherini Atzerri Gaietarako eta Segurtasun Politikarako goi ordezkariak EBko segurtasun eta kanpo politikarako bere estrategia orokorra aurkeztu zuen. Estrategia orokorrak, hain zuzen, EBren ikuspegi partekatua erakusten du, bai eta atzerrian beste eragile batzuekin batera eta erantzukizunez jarduteko esparrua ere, EBren balioak eta interesak defendatzeko, segurtasunari, demokraziari, oparotasunari eta arauetan oinarritutako mundu ordena bati dagokienez; tartean, giza eskubideak eta zuzenbidezko estatua. Horrenbestez, datozen urteotan EBk atzerrian egingo duen egintza bideratzeko baliagarria izango den estrategia bat da.

Bestalde, uztailaren 8an, Kontseilu Europarreko presidentek, Europako Batzordeko presidentek eta Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundeko idazkari nagusiak EB-NATO adierazpen bateratua sinatu zuten. Adierazpen horrek bultzada eta edukia gehitu dizkio EB-NATOren arteko elkarlanari, hain zuzen, honako arlo hauetan: mehatxu hibridoak aurkako borroka; migrazio irregularra; zibersegurtasuna eta ziberbabesa; defentsa gaitasunak; defentsaren industria eta defentsari buruzko ikerketa; ariketak; eta Mendebaldeko Balkanetan eta Ekialdeko eta Mendebaldeko Inguruetan bazkideek dituzten gaitasunak egonkortzeko ahaleginaren babesa eta horien erresilientziaren indartzea.

Era berean, Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen 2030eko Agenda aplikatzea da EBk epe ertainera proposatutako beste erronka nagusietako bat. Garapen jasangarrirako helburuak betetzeko, EBk bi lan ildo ezarri ditu: batetik, europar politiken esparruan eta Batzordearen gaur egungo lehentasunetan garapen jasangarriaren helburuak txertatzea; eta, bestetik, epe luzeagorako ikuspegiaren garapen gehigarriari buruzko gogoeta bat egitea, eta 2020tik aurrera politika sektorialak bideratzea.

Energia eta ingurumena

Europako Batzordeak EBren Energia Garbiaren Sorta aurkeztu zuen 2016ko azaroan. Sorta hori osatzen duten legegintza proposamenek, hain zuzen, energia eraginkortasuna, energia berriztagarriak, merkatu elektrikoaren diseinua, hornidura elektrikoaren segurtasuna eta Energiaren Batasunerako gobernantza arauak biltzen dituzte. Era berean, Batzordeak ekodiseinurako ikuspegi berri bat proposatu zuen, bai eta mugikortasun elkartu eta automatizatu baterako estrategia bat ere. Sorta horretan, halaber, energia garbian berrikuntzak txertatzeko modua bizkortzeko ekintzak daude jasota, eta baita europar eraikinak berritzeko, inbertsio publiko zein pribatuak sustatzeko, EBren industria lehiakortasuna indartzeko eta energia garbirako trantsizioak gizartean duen eragina arintzeko ekintzak ere.

Zehazki, Energia Eraginkortasunari buruzko Zuzentaraua, Eraikinen Errendimendu Energetikoari buruzko Zuzentaraua eta Energia Berriztagarriei buruzko Zuzentaraua berrikusteko proposamenak biltzen ditu sortak.

Proposamen horiekin, Batzordearen helburua da erakustea energia garbiranzko trantsizioa dela etorkizuneko hazkunde sektorea, eta EB ondo kokatuta dagoela ikerketa, garapen eta berrikuntza politikak erabiltzeko, trantsizio hau industria aukera jakin bihurtzeko asmoz. Batzordearen datuen arabera, 2021. urtetik aurrera urtean gehienez ere inbertsio publiko zein pribatuen 177.000 milioi euro mugituz gero, neurri sorta horrek BPGaren % 1era arteko gorakada ekar lezake hurrengo hamarkadan zehar, eta 900.000 enplegu berri sor litzake.

Energia segurtasunari dagokionez, Europako Batzordeak horniduraren segurtasun sorta ezagutarazi zuen 2016ko otsailean. Sorta horrek hainbat neurri proposatzen ditu, batetik, eskualdeen arteko lankidetzak sustatzeko eta, bestetik, gas horniduraren krisiari aurre egiteko. Europako Parlamentuak horniduren segurtasun sortari buruz zuen iritzia eman zuen, Energiari buruzko Kontseiluak 2016ko abenduan bere iritzia eman zuen bezalaxe. Energiari buruzko Kontseiluak urte berean ikusi zuen nola EBk eta Estatu Batuek indartu egin zuten lankidetzak, energia segurtasunaren, energia politikaren eta energia teknologiaren garapenaren arloetan.

2016an EBk egindako beste zereginetako bat izan da, hain zuzen, ingurumenarekin errespetuz jokatzeko duen Energia Batasun indartsu bateranzko aurrerapausoak ematea. Arlo honetan lortu nahi den helburua da, zehazki, ekonomia modernizatzea, berotegi efektuko gasen isurpenak murriztuz eta EBren berrikuntza eta lehiakortasuna indartuz. Horrekin lotuta, urrian, pauso garrantzitsua eman zen, EBk klima aldaketari buruzko Parisko Akordioa berrets dezan gauzatutako prozesu politiko garrantzitsua amaitu baitzen (Europako Parlamentuaren onespenearekin).

2014an, EBk erabaki zuen 1990eko mailekin alderatuta, 2030era bitarte berotegi efektuko gasen isurketak gutxienez % 40 murriztea. 2016ko ekainean, berriz, estatu kideek garraioaren, etxebizitzaren eta nekazaritzaren sektoreei eta beste sektore batzuei begira dituzten helburuak finkatu zituen Batzordeak, eta isurketa txikiko mugikortasunerako estrategia bat ere finkatu zuen. Europar Batasunak karbonorik gabeko ekonomia baterako trantsizioan harrera ona izan duen lidergo lana egin du, Parisko COP21 Akordioak aurreikusi bezalaxe.

2015eko abenduan, Europako Batzordeak ekonomia zirkularrari buruzko neurri sorta berri bat onartu zuen, Europako enpresa zein kontsumitzaileei ekonomia egonkor eta zirkularrago baterako trantsizioan laguntzeko, non baliabideak modu jasangarriago batean erabiliko diren. Proposatutako pizgarrien eraginez, pixkana-pixkana, ekoizteko eta kontsumitzeko modu berritzaileak eta eraginkorragoak sortzen joan beharko lirateke. Neurri sektorialak ere ezarri dira, bai eta bigarren mailako lehengaien kalitaterako arau batzuk ere.

Hondakinei dagokienez, hondakinak murrizteko helburu garbiak proposatu dira, eta hondakinen kudeaketarako eta birziklapenerako epe luzeko bide bat finkatu da. Hondakinak murrizteko helburuak modu eraginkorren beteko direla bermatzeko, neurri zehatz batzuk bildu dira proposamen berrian, estatu kideetan dauden egoera eta trabei tokian bertan aurre egin ahal izateko. Europako Parlamentuak lehenengo irakurketa onartu du 2017ko martxoan, eta legegintza prozesuak aurrera jarraitzen du.

Enplegu, hezkuntza eta kultura politikak

EBko langabezia tasa mailarik txikienean dago 2009. urteaz gero. 2016ko maiatzean, aitortu gabeko lanaren aurkako borroka gaietan lankidetzaren indartzeko europar plataforma jarri da martxan, jarduera horiek guztiak ere lan aitortu bihurtzeko. Era berean, hezkuntza politikarekin lotuta, Europarentzako Ahalmenen Agenda Berri bat aurkeztu zuen Batzordeak ekainean. Kualifikazioen kalitatea hobetzeko hainbat ekintza eta lan merkatuari egokitzeko proposamen bat biltzen ditu, bai eta gaitasun gutxiko helduei euren gaitasunak hobetzen laguntzeko ekimenak ere. Kontseiluaren 2016ko otsailaren 15eko gomendioak osatzen du agenda; alegia, iraupen luzeko langabeak lan merkatuan txertatzeari buruzko gomendioak. Era berean, EBren finantzaketa, bereziki Europako Gizarte Funtsarena, EBko langileen kualifikazioak hobetzea bultzatzen ari da.

Gazteen langabeziaren aurkako borrokari dagokionez, EBk Gazteen Bermea egikaritzea babesten jarraitu du 2016an ere, gazteen langabezia tasa handiko estatu zein eskualdeetan; esaterako, Euskadin. Gazteen Berme hori, hain justu, Enpleguari buruzko Ekimenak, Europako Gizarte Funtsak eta nazioko zein eskualdeko finantzaketak finantzatzen dute.

Hezkuntza politikarekin lotuta, eta Espezializazio Adimendunerako Europako Estrategia/RIS3rekin bat etorrita, 2016. urtean ardatz nagusia izan da, hain zuzen, Europarentzako Ahalmenen Agenda Berria/New Skills Agenda berrikustea, eta sektore espezializatu zehaztetan duen eragina aztertzea (manufaktura, itsasokoa-nautikoa, droneak, etab.), bai eta unibertsitatea-lanbide heziketa-enpresa aliantzaren ahalmena eta horrek nazioarteko sailkapenekin eta espiritu ekintzailearekin duen lotura aitortzea ere. 2016. urtea garrantzitsua izan da, halaber, lanbide heziketaren zeregina ikusarazteari dagokionez; izan ere, Europako Batzordeak aurrenekoz antolatu du Ikaskuntzaren eta Lanbide Heziketaren Europako Astea.

Europako kultur politikaren arloan, kanpoko kultur politikaren europar estrategia osatzeko faseari eman zaió lehentasuna. Bidenabar, EBko kulturari buruzko instituzio nazionalen sarea (EUNIC) egonkortu da, kanpoko kultur lankidetzarako estrategia gidatzeko eragile gisa. Era berean, Europako Agendan, handitu egin da kultura eta sorkuntza industrien eskualdeko ahalmena eta horiek Espezializazio Adimendunerako Europako Estrategia/RIS3rekin duten lotura. Bide beretik, Ikus-entzunezkoen Europar Zuzentaraua berrikusi da, hizkuntza aniztasunaren pisua indartu da, eta industriak hizkuntzan duen pisu ekonomikoa areagotu da.

EBko Kontseiluaren presidentetza

2016an, EBko Kontseiluaren txandakako presidentetza Herbehereek eta Eslovakiak bete zuten, hurrenez hurren. Herbehereek lehentasunezko zatitzaio zituzten honako gai hauean egin beharreko jardunak: immigrazioa eta nazioarteko segurtasuna; enpleguaren hazkundea eta berrikuntza; eurogune modernoa, finantza publiko jasangarriduna; eta energia politikek klimari eta ingurumenari begira izan beharreko ikuspegi koherentea.

Eslovakiak, berriz, presidentetzaren programa eta lehentasunak lau ekintza ardatzen arabera diseinatu zituen: ekonomikoki sendoa den Europa; merkatu bakar modernoa; immigrazio eta asilo politika jasangarriak; eta lidergo orokorreko Europa.

Estatu kideetan izandako gertaerak

Estatu kideei dagokienez, Erresuma Batuak EBn jarraitzeari buruz egindako erreferenduma izan zen, hain zuzen, garrantzi handieneko gertaera, arestian aipatu ditugun arrazoiak direla tarteko. Erreferendumaren emaitza ezagutu ondoren, James Cameron orduko Lehen Ministroak dimisioa aurkeztu zuen. Bi asteren buruan, uztailaren 13an, Theresa May Alderdi Kontserbadoreko kide eta Home Officeren arduraduna izendatu zuten Lehen

Ministro, inolako hauteskunderik egin gabe. Erresuma Batuko lehen ministroaren eta Europako liderren arteko harremana tirabiratsua izan da une oro, Erresuma Batuaren irteeraren negoziazioaren esparruan.

2017an, hauteskundeak egin dira Erresuma Batuan. Bertan, Alderdi Kontserbatzaileak (Theresa May buru duela) botoen % 42,2 lortu ditu (12 aulki galdu); Alderdi Laboristak (Jeremy Corbyn buru duela) botoen % 40 (30 aulki irabazi); Nicola Sturgeon buru duen Eskoziako Alderdi Nazionalak, botoen % 3 (21 aulki galdu); eta Tim Farronen aldeko Liberal Demokratek, botoen % 7,4 (aurrekoan baino 4 aulki gehiago).

Bestalde, Austriak presidentetzarako hauteskundeak egin zituen apirilaren 24an. Hauteskunde horiek kezka iturri ziren EBren baitan, eskuin muturrak izan zezakeen garaipena zela tarteko. Alabaina, Berdeen hautagaia (Alexander Van der Bellen) izan zen garaile, botoen % 53,8rekin. Eskuin muturreko Austriako Askatasunaren Alderdia, berriz, bigarren geratu zen, Norbert Hofer hautagaiak botoen % 46,2 eskuratu baitzituen. Eskuin muturraren porrotak, gutxigatik izanagatik ere, arnasa hartzen utzi zion EBri.

2017ko urrian, ordea, Austriako Parlamenturako hauteskundeak egin ziren. Horietan, Austriako Alderdi Popularra (ÖVP) izan zen bozka gehien jaso zituena. Herritarren botoen % 31,7 eskuratu zituen, eta horrek 62 aulki eman zizkion. Era horretan, popularrek lehendik zituzten aulkien kopurua (15) handitzea lortu zuten. Sebastian Kurz (Viena, 1986) Alderdi Kontserbadoreko liderra bihurtu zen, beraz, munduko gobernuburu gazteena, 31 urterekin.

2017ko urriaren 2an, errefuxiatuen krisia kudeatzeko EBk onartutako berrezarpen planari buruzko erreferenduma egin zuen Hungariak. Kontsultaren helburua zen, hain zuzen, erabakitzea ea herrialdea prest zegoen EBk hartutako erabakiarekin bat etorrita jaso beharreko errefuxiatu kopurua onartzeko. Bozkatu zuten gehienek uko egin zioten errefuxiatuen kuotari (% 98,36). Alabaina, parte hartzea hain izan zen txikia, ez zutela baliagarritzat jo kontsulta. Eta Hungariak erakutsitako elkartasun gabeziak eta jarrera erronkariak gainerako estatu kide guztien eta EBko erakundeen haserrea eragin dute. EBk, azken finean, espedientea ireki behar izan die 2017an Poloniari, Hungariari eta Txekiar Errepublikari, ez baitiete harrera egin zegozkien errefuxiatuei.

III. EUSKAL ERAKUNDEEK 2016. URTEAN ZEHAR EUROPAR BATASUNEAN EGINDAKO JARDUNAK

Aurreko urteetan bezalaxe, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian egokitzat jo da 2016. urtean euskal erakundeek egindako jardunak berrikustea, honako irizpide hauen arabera:

III.1. Eskualdeetako Lantaldean parte hartzearekin lotuta egindako jardunak. Horixe da, hain zuzen, Europar Batasuneko organo bakarra, non Europar Batasunaren Tratatuak eurek ordezkariak erabat deszentralizatu egiteko aukera ematen duten.

III.2. Europar Batasuneko Kontseiluaren eta Europako Batzordearen Lantaldeen arloan parte hartzeko gauzatutako jardunak. Jardun horiek, hain justu, 2004ko abenduaren 9ko Europar Batasunaren inguruko Gaietarako Konferentziaren bi akordiotan daude jasotak.

III.3. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eta interesetatik eratorritako Jaurlaritzaren egintzen arloekin lotuta Europar Batasunean egindako jardunak.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian Europar Batasunaren arloan egindako lana, hain zuzen, Europako Gaietarako Zuzendaritzak eta Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzak modu koordinatuan jardunez gauzatzen da. Bere ezaugarri nagusiak dira, hain justu, Europako gaien buruzko ezagutza handia, bere jardunen balio erantsi handia eta honako hauei zerbitzua emateko espiritua: Jaurlaritzaren Sailei, Foru Aldundiei, euskal udalari eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde eta organo batzuei, bai eta gizarte eta ekonomiaren arloko euskal eragile nagusiei ere.

Eta hori guztia, zehazki, euskaldunok tokia izan dezagun Europar Batasuneko erakunde eta organoetan eta interesekoak diren europar sare eta foroetan; eta, azken batean, Euskadik Europar Batasunean duen posizioa hobetzeko.

III.1. Eskualdeetako Lantaldea eta Euskadik bertan duen parte hartzea

Eskualdeetako Lantaldea (aurrerantzean EL) EBko eskualde eta udalerrri guztiak ordezkatzen dituen batzar politikoa da. Maastrichteko Tratatuak 1992an sortu zuen. 1994ko martxoan hasi zuen bere ibilbidea eta, harrezkero, handituz joan da kontsultarako duen boterea eta bere eragina, nola Europako Erkidegoko legedian, hala Europako agenda politikoaren jardueran.

2016. urtea tristeziatz gogoratuko dugu, hainbat arrazoi direla tarteko: atentatu terrorista tragikoak, migrazioaren erronka, Brexitaren aldeko botoa eta kontinente osoan izandako mugimendu populisten eta euroeszeptikoen goraldia. Horrekin lotuta, Eskualdeetako Lantaldeak funtsezko zeregina dauka, Europako errealitatearen berri tokian bertan emateari dagokionez. Hala, Kontseilu Europarrak eskatu dio datorren urtean “EBri buruzko gogoetak” ardatz hartuta egingo diren eztabaidetan parte har dezan.

ELk 350 kide titular ditu (eta beste 350 ordezko): EBko 28 estatu kideetako eskualdeetako presidenteak, alkateak, zinegotziak, sailburuak, diputatuak, etab. Horien guztien egitekoa da, hain justu, Bruselara joatea eurak ordezkatzen dituzten herritarren interesak defendatzera, erabateko independentziatz eta, betiere, Europar Batasunaren interes orokorra lortu nahian. Euskadiko kide titularra Lehendakaria da; ordezko kidea, berriz, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia.

Europar araudia osatzeko prozesuan, Europako Erkidegoko erakundeak derrigortuta daude ELk jardunbide arloei buruz duen iritzia jasotzera, arlo horiek eragina baitute eskualde eta tokiko eskumenetan. Hauek dira derrigorrez kontsultatu beharreko arloak: garraioa; enplegua; gizarte politika; Europako Gizarte Funtsa; hezkuntza; lanbide heziketa; gazteria eta kirola; kultura; osasun publikoa; Europaz haraindiko sareak; ekonomia, gizarte eta lurralde kohesioa; ingurumena eta energia. Era horretan, EBren jardunbide arlo gehienak estalita geratuko dira. Derrigorrezko kontsultez gainera, Kontseilu Europarrak, Europako Batzordeak eta Parlamentuak aukera izango dute ELri bestelako hautazko kontsultak egiteko. Gainera, ELk bere iritzia ere eman ahal izango du.

Iritzi horiek batez ere europar araudiari buruzko irizpen politikoen bitartez ematen dira. Eta, gerora, Europako Batzordera, Kontseilu Europarrera eta Europako Parlamentura igortzen dira.

Irizpenez gainera, ELk hainbat txosten eta erabaki osatzen ditu, Europako Erkidegoko legediak udalerrietan zein eskualdeetan duen eraginaren berri jasotzeko, EBren agendan gaiak txertatzeko eta gaur egungo arazo politikoei buruzko iritzia emateko. 2016an, ELk 58 irizpen eta erabaki hartu ditu, guztira.

ELk parlamentu baten pare jokutzen du, nahiz eta kontsultarako organoa baino ez izan. Urtean bospasei osoko bilkura egiten dira Bruselan. Horietan, kideez gainera, pertsona eta hizlari gonbidatuak ere parte hartzen dute –batez ere EBko presidentetza duen herrialdeko goi ordezkariak eta komisarioek–, gaurkotasunezko gaiei buruz eztabaidatzeko.

Honako hauek osatzen dute: presidenteak, lehen presidenteordeak, 28 presidenteorde gehiagok (estatu kide bakoitzeko bana), bost talde politikok, 63 kidek osatutako mahai batek, sei batzorde iraunkorrek (eta berariazko beste hainbestek, premien arabera), ordezkariak nazionalak, lantaldeak eta eskualde arteko lobby taldeak.

Euskadik 2016an Eskualdeetako Lantaldean izandako parte hartzea

ELk eskualde eta tokiko ordezkariak organo gisa EBko erabakiak hartzeko prozesuan duen egitekoa dela tarteko, europar araudiari zuzenketak aurkeztea da, hain zuzen, euskaldunok iritzia emateko eta organo horretan parte hartzeko bide nagusia. Europako erabakitze prozesuan ELren kontsulta jarduera esaten zaio horri.

Gainera, iaz beste jarduera paralelo batzuk ere izan dira, non Eusko Jaurlaritzak parte hartu duen. Txosten honetan, baina, garrantzitsuenak baino ez dira jasoko.

1. eranskinean, Eusko Jaurlaritzak 2016. urtean izandako parte hartze garrantzitsuenari buruzko laburpen taula bat ikus daiteke. Bertan daude jasota erreferentziazko ekimena, ordezkariaren izena, jardun mota eta parte hartzea egin zeneko data.

1. Europako Erkidegoko araudiari zuzenketak aurkeztearekin lotuta, egin diren bost osoko bilkuretan parte hartu du Eusko Jaurlaritzak, **114** zuzenketa egin ditu, eta organo horren aurrean **95** aurkeztu; horietatik **76** onartu dira.

2. eranskinean, zuzenketa horiei buruzko informazio zehatza kontsulta daiteke.

Bigarrenik, eta kontuan izanda zuzenketa bat aurkezteko beharrezkoa dela ELko beste bost kideren sinadura lortzea, 2016an hainbat eskualde eta udalerrik **391 zuzenketa** bidali zizkioten Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari, Eusko Jaurlaritzaren babesa lortzeko eta zuzenketak elkarrekin aurkeztu ahal izateko. Guztiak behar bezala aztertu ondoren, Jaurlaritzak **205** babestu zituen; alegia, jasotako zuzenketa guztien % 52 inguru.

3. eranskinean, berriz, beste eskualde batzuek osatu eta Euskadirekin batera aurkeztutako zuzenketak kontsulta daitezke.

Azkenik, nabarmentzekoa da Eskualdeetako Lantaldeko jarduera guztia gauzatzeko, kideak aldi behin biltzen direla, osoko bilkuren aurretik, nola Europako talde politikotan, hala estatuko ordezkarietan.

2. Zuzenketez gainera, 2016an, Markku Markkula **Eskualdeetako Europar Lantaldeko presidentearekin** hainbat **topaketa instituzional** egin dira, bai eta Lantaldeko beste kide batzuekin ere, Euskadira egindako bisitaren kariatara. Lehendakariak eta Markkula presidenteak 2016an izandako lehenengo topaketa urtarrilean izan zen, Lehendakariak Bruselara egin zuen bidaiari. Zehazki, Vanguard Regions (Abangoardiako Eskualdeak) ekimenaren baitan egindako bidaiari izan zen, industria erronkei buruzko mintegi teknologiko bat inauguratzeko.

2.1. Gerora, Markku Markkula **Eskualdeetako Lantaldeko presidenteak bisita instituzionala** egin zuen **Euskadira**, Hiri eta Herri Jasangarrien Europako VIII. Konferentzia zela tarteko. Bilbon izan zen, apirilaren 27an, 28an eta 29an. Lehendakariak gonbidatu zuen Markkula, berrikuntzaren, jasangarritasunaren eta hiri eraldaketaren arloetako euskal politikak bertatik bertara ezagut zitzan, eta aipatutako Konferentzian parte har zezan.

Lehendakaria zein presidentea hainbat gai aztertzeke bildu ziren: eskualde arteko europar lankidetzak, Europar Batasunaren Hiri Agenda, hiri adimendun eta jasangarriak, eta COP22 Klimari buruzko Goi Bilerak. Biak ala biak bat etorri ziren, eta adierazi zuten funtsezkoa dela estatu barneko erakundeek proiektu bateratuan duten egitekoa, eta gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza politikekin lotutako gaiak landu zituzten.

ELko presidenteak gonbidapena egin zion Euskadiri, berrikuntzaren arloan eta hiri garapen jasangarriari buruzko ezagutza hobean aitzindariak izango diren eskualdeen talde bat sortzeko. Adierazi zuen Euskadi eskualde historiko eta enblematikoa izaki, herrialdea hobeto ezagutzeko interesa zeukala, eta hainbat jardunbide alorretan elkarlanean jarduteko gogoak adierazi zuen.

Era berean, Hiri eta Herri Jasangarrien Europako VIII. Konferentziaren inaugurazioan parte hartu zuen Markku Markkulak. Alboan izan zituen Lehendakaria, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua, Bilboko alkatea, Bizkaiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko sailburua eta Europako bi goi ordezkari. Gainera, soilik alkateentzat egindako saioan ere parte hartu zuen. Bertan, Europako Hiri Agendari buruz jardun zuen, eta hirietan zein eskualdeetan legeak hobeto nola eman azaldu zuen. Markkulak, era berean, Europako hiriek berrikuntzaren arloan duten egitekoari buruzko talde batean parte hartu zuen. ICLEIk (Jasangarritasunerako Tokiko Gobernuen Sarea) euskal erakundeekin batera antolatu zuen ekimena, eta 800 pertsonak parte hartu zuten.

Euskadira egindako bigarren bisita egunean, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako sailburuak egin zion harrera Markkula presidenteari, Zamudioko Teknologia Parkean, Euskadiko industria politika eta ekonomia garapenari, eta ikerketa aplikatuaren, berrikuntzaren eta teknologia berrien bidezko enpleguaren sorkuntzari buruz jarduteko. Markkula goi mailako hainbat teknologia zentrotara joan zen. Tartean, BIC Bizkaia zentrorak (manufaktura aurreratuan eta teknologia garbieran espezializatua), CIC bioGUNEra (medikuntza ikerketan aditua) eta TECNALIARA (ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko Europako zentro garrantzitsuenetako bat).

2.2 Bestalde, **ELren Ingurumen, Klima Aldaketa eta Energia Batzordearen** eskualdeko eta tokiko ordezkariak batek **azterketa bisita bat** egin zuen **Euskadira**, hemengo ingurumen politikak ezagutzeko eta Hiri eta Herri Jasangarrien Europako VIII. Konferentzian parte hartzeko. Ordezkaritza hori, hain zuzen, ingurumenean adituak diren agintaritzak politikoek osatu zuten, guztiak ere herrialde hauetakoak: Austria, Eslovakia, Errumania, Alemania, Hungaria, Finlandia, Estonia eta Erresuma Batua.

Lehendakariak, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak eta Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusiak egin zioten harrera ordezkari horri, Hiri eta Herri Jasangarrien Europako VIII. Konferentziaren aurretik. Konferentzia horixe inauguratu zuten gero, Markku Markkula ELko presidentearekin batera.

Era berean, Eskualdeen Europar Lantaldearen ordezkari Ingurumen sailburuordearekin, IHOBEn zuzendariarekin, eta Saileko beste kargu batzuekin bildu zen bezperan, jasangarritasunarekin, klima aldaketarekin eta gune naturalen kontserbazioarekin lotuta egiten ari diren politikak ezagutzeko asmoz. Testuinguru horretan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbara egin zuen bisita ordezkariak. Gune hori EBren Natura 200 Sarean dago txertatuta; alegia, gune natural babestuen Europako sarean.

2.3. Geroago, ekainean, Eusko Jaurlaritzaren **Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua** Markku Markkula **Eskualdeetako Europar Lantaldeko presidentearekin bildu** zen Bruselan, Euskadik nazioarteko ingurumen ekintzan gauzatzen dituen ekimenak sakon aztertzeko eta Habitat III programari buruzko esperientziak trukatzeko. Zehazki, Hiri eta Herri Jasangarrien VIII. Konferentzian Europako eskualdeek eta hiriek jasangarritasunaren alde sinatutako “*euskal adierazpenaren*” egoeraren berri eman zuen sailburuak.

Markkula presidentek, berriz, Helsinkiko eskualdeko ingurumen lehiakortasunerako programa aurkeztu zion sailburuari. Programa horren buru dira, hain zuzen, eskualdea bera, Helsinki hiria eta beste 23 udalerri, eta uraren eta garraio publikoaren kudeaketaz dihardu.

Gainera, proposamen bat egin zion sailburuari: eskualdeko garapen jasangarria sustatzen duten Europako eskualde aitzindarien taldean sartzeko gonbita egin zion Euskadiri (apirilean, horren berri emana zion Lehendakariari ere). Oregiren hitzetan, “Europako eskualde adimendunen espezializazio estrategiaren helburua da, hain zuzen, eskualde garapen jasangarria sustatzea, 2020. urteko helburuarekin, gobernuek, tokiko administrazioek, unibertsitateek eta ehundura ekonomikoak sustatutako ikerketa eta berrikuntza jardueri esker”.

2.4 Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak berriz ere parte hartu zuen Eslovakiako hiriburuan, **Bratislavan**, 2016ko uztailaren 7an eta 8an egindako **Eskualdeen eta Hirien Europako Goi Bileran**. Bi urtean behin, Eskualdeen Europar Lantaldeak Europako, estatuko, eskualdeko eta tokiko politikariak, adituak eta gizarte zibila biltzen ditu era honetako ekimenetan, EBko herritarrei eta lurraldeei egunero eragiten dieten politikari buruz eztabaidatzeko.

Goi bilera honen zazpigarren edizioan, EBren Kontseiluko Eslovakiako presidentetzaren esparruan “Inbertitu eta lotu” lelopean antolatutako hartan, inbertsio publiko-pribatu handiagoa erakartzeko, lanpostu gehiago sortzeko eta inbertsio gabeziak sortutako arazoari aurre egiteko hainbat bideri buruz eztabaidatzea zen helburua. Bertan, besteak beste, honako hauek parte hartu zuten: Peter Pellegrini Eslovakiako Inbertsioetarako lehen ministrordeak; *Maroš Šefčovič* Europako Batzordeko presidenteordeak; *Violeta Bulc* Garraio eta Mugikortasunaren Arloko Europar Komisarioak; *László Baranyay* Europako Inbertsio Bankuko

presidenteordeak; Jeremy Rifkin Joera Ekonomikoen Fundazioko presidente eta aholkulari politiko zein ekonomialari ezagunak; eta ELko presidentek berak.

Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusiak hainbat ikuspuntu trukatu zituen **Katainen komisarioarekin** eta **Markkula presidentearekin**, Juncker Planaren arabera finantzatutako europar proiektuen birtualtasunei buruz eta, zehazki, Euskadiren proiektuei buruz. Europako Goi Bileran, 1.000 pertsonak parte hartu zuten guztira, eta 220 ELko kideak ziren. Bratislavako adierazpena sinatu zen, zeinak babesten duen EBrentzako etorkizuneko ikuspegi bat, kohesioa, hazkunde jasangarria eta hiri zein eskualdeetan enplegua sortzea sustatzeko inbertsioa indartzean oinarritutakoa. Adierazpena onartzeak berarekin dakar hiriak eta eskualdeak aldaketa eragile gisa definitzeko ELk epe luzera duen ikuspegiari laguntzea.

3.- Topaketa instituzionalez gainera, euskal administrazioetako hainbat ordezkari lantaldearen lanetan parte hartu dute, txostenen bitartez, euren lurraldeetan gauzatutako politika zehatzei buruzko **jardunbide egokien adibideak** azalduz, esperientzia truke baten esparruan, elkarrekin ikasteko asmoz, eta eskualdeek zein udalerriek ere europar helburuak betetzen laguntzeko modu bat izan dezaten.

3.1. Eusko Jaurlaritzak, ELren ekimen baten testuinguruan, Euskadin RIS3 abiarazteari buruz gauzatutako **jardunbide egokien adibide** baten berri eman zuen, Hiri Habitat izenez identifikatutako aukera hobiaren bitartez. Ekimen horren baitan, **Eskualdeko eta Tokiko Berrikuntzarako Ekosistemei buruzko jardunbide egokien Gidaliburu** bat argitaratu zen, EBren Hiri Agenda abiaraztearen esparruan. Lehendakariak Euskadiren jardunbide egokien adibidearen berri eman zuen, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Planaren lehentasunak balioan jarriz.

Gidaliburu horren helburua da, hain justu, hainbat arlotan aitzindariak diren eskualdeen eta hirien esperientziak ezagutaraztea, enplegu eta hazkunde jasangarria izateko irtenbideak emateko asmoz. Aldi berean, Europako hainbat eskualde eta hirien arteko elkarrizketa, ikaskuntza eta lankidetzak bultzatzen dira, beste lurralde batzuetan gauzatzen dituzten jardunbide egokiak partekatu, ezagutu eta antzeratu ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako proiektuen artean, nabarmentzekoak dira Bilbo-Bolueta eremua birsortzea eta “SmartEnCity-Koroatzea” izenekoak. Lehenengoaren helburua da ingurua lehengoraztea, oinarritzko 3 arlotan oinarrituta: arkitektonikoa, mikro-hiritarra eta sektoriala. Betiere, energia aurrezpena, erosotasun akustiko zein termikoa, barneko airearen kalitatea, eta material natural eta osasuntsuekin egindako eraikuntza nabarmenduz. Bestalde, Gasteizko Koroatzearen kaleko “SmartEnCity” proiektua eraikitakoaren gainean jarduteko ildo estrategiko baten baitakoa da, lehengorazteko eredu berri jasangarri, sozial, ekonomiko eta Europako gidalerroekin bat datorrena sustatzeko.

3.2. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua gonbidatu zuten, Europako beste erakunde batzuetako ordezkariekin batera, txostengile gisa “**COP22: Klimarekin konprometitutako eskualdeak eta hiriak**” hitzaldian parte hartzea. Bruselan egin zen, ekainean. Hitzaldi hori hitzordu garrantzitsua izan zen klima aldaketaren aurkako borrokan diharduten eskualdeentzat; izan ere, baliagarria izan zitzaien 2016ko azaroan Marrakexen egin zen Klimari buruzko Munduko Goi Bileran edukiko zuten jarrera prestatzeko.

Parisko Akordioari jarraiki, ituna egikaritu eta, hala, isurketak murrizteko helburuak lortzeko beharrezkoak diren mekanismoei buruzko eztabaida sustatzen ari da, gaur egun, EL. Era horretan, lantaldearen helburua da estatukoak ez diren eragileak txertatzea (bereziki, Europako hiri eta eskualdeak), horien ahotsa ere entzun dadin akordioa egikaritzeari buruzko eztabaidetan. Horrekin lotuta, nabarmentzekoa da tokiko zein eskualdeko erakundeak direla berotze globalaren aurkako neurrien % 70 inguru abian jartzearen erantzuleak.

Bere hitzaldian, Parisen sinatutako Klimari buruzko Akordioa Euskadik nola garatu duen aztertu zuen sailburuak, eta nabarmendu zuen euskal enpresen arloak eta euskal gizarteak zer-nolako esku hartzea izan zuten helburu horiek aplikatu eta lortzeko zereginen. Bide beretik, karbonorik gabeko ekonomiak Euskadiko enpresa ehunaren lehiakortasunean duen eragina aztertu zuen, lehiakortasuna/energia/CO₂ isurketak hirukoak etorkizunean elkarren artean izango duten harremanaren hurbilketa bat egiteko asmoz, euskal industria ehunaren posizionamendua finkatzeko. Hainbat ekimenen berri eman zuen; esaterako, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa, Basque Ecodesign Center, eta klusterren politika, enpresetara erakartzeko elementu gisa.

3.3.- Hamabigarren aldiz jarraian parte hartu zuen Euskadik “Open Days”-etan; alegia, Eskualdeetako Europar Lantaldeak eta Europako Batzordeak antolatutako atea zabaltzeko egunetan. Urteroko hitzordua izaten da, Europako eskualde zein hiriek jardunbide egokiak trukatu eta horiei buruz eztabaida dezaten. Aurten, “**Hazkunde jasangarri eta inklusibo batzuen aldeko eskualdeak eta hiriak**” lelopean egin diren 2016ko “Open Days”-etan 5.000tik gora lagun bildu dira lau egunetan (urriak 10-13), eta Bruselako hainbat txokotan egindako 130 tailer eta mintegi ingurutan parte hartu dute.

3.3.1. Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzak, Eskoziako, Finlandiako, Danimarkako eta Poloniako eskualdeetako eta tokiko beste bazkide batzuekin batera, hitzaldi bat antolatu zuen: “**Hiri adimendun izateko nahiaren finantzaketari eta banaketari buruzko hirien arteko ikuspegiak**”. Bertan, Euskadiren Europar Batasuneko ordezkariak hartu zuen parte, txostengile gisa.

Ekimen hori baliagarria izan zen hirien arteko lankidetzatik hiri adimendunen garapenerako sortzen diren aukerak agerian jartzeko. Era berean, hirien partenariotza batzuen kasuak azaldu zituzten, zeinek lurralde inbertsioetarako mekanismo integratuak erabili dituzten hiri adimendun izateko daukaten nahia finantzatzeko.

Bere hitzaldian, Eusko Jaurlaritzak hiri adimendunen garapena bultzatzeko baliatzen ari den hainbat estrategia aurkeztu zituen ordezkariak, eta Horizon 2020 programaren Hiri eta Erkidego Adimendunen deialdian onartutako bi proiektuen berri eman zuen: SmartEnCity eta REPLICATE, Gasteizen eta Donostian egin beharrekoak, hurrenez hurren.

3.3.2. Bestalde, Euskadiren Ordezkaritzak, “Regional Initiative for Culture and Creativity” (RICC) sareko kide den heinean, hitzaldi bat antolatu zuen: “**Sorkuntzazko kultura eta industriak espezializazio adimendunerako eskualde estrategietan (RIS3): Nola ari dira moldatzen eskualdeak?**”. Europako Batzordearen ordezkariak eta EBko beste eskualde batzuetakoek parte hartu zuten bertan.

Hitzaldiak, zehazki, sorkuntzazko kulturak eta industriak eskualdeetako eta hirietako garapen ekonomikoaren motor gisa duten zeregina nabarmendu zuen. Eta baliagarria izan zen, halaber, Europako eskualde politikari buruzko gogoeta estrategiko bat egiteko, eskualdeen premietan oinarritutako koordinazio lana bultzatzeko, eta espezializazio adimendunarekiko lerrokatzea sustatzeko.

Ordezkariek, hain justu, RIS3 espezializazio adimendunaren eta abangoardiakoaren lurralde gisa Euskadik duen posizioa nabarmendu zuen. Zehazki, Euskal Herriaren 3D ikuspegia nabarmendu zuen, industria (enpresa garapena eta negozio eredu), kultura (talentua, sormena eta sorkuntza), ikerketa, berrikuntza eta teknologia batzeko eta, hala, negozio eredu berriak eta publiko berriak lortzeko.

3.4. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak **Eskualdeetako Europar Lantaldearen “*Science meets Regions*”** hitzaldian parte hartu zuen, Bruselan, azaroaren 7an. Bertan, garapen jasangarriarekin lotuta Euskadin gauzatzen ari diren hainbat proiektuen berri eman zuen. Mintegi horixe izan zen, hain justu, Eskualdeetako Lantaldeak aukeratutako 7 eskualdeek euren esperientzia berritzaileak aurkezteko sustatutako “Europako eskualde aitzindariak” ekimenaren abiaburua, gerora Europako beste eskualde eta hiri batzuek ere gauza bera egin dezaten.

Proiektu pilotuan, goi mailako bi hitzaldi egin ziren, ELk Europako Batzordearekin eta Parlamentuarekin lankidetzan antolatutakoak: “Science meets Regions” eta “Sciences meets Parliaments”. Horietan, eskualdeko eta Europako ordezkari politikoak, ikerketa zentroak eta unibertsitateak bildu ziren, esperientzia trukea egiteko eta agintaritzak politikoaren eta komunitate zientifikoaren arteko elkarriketa sustatzeko eta, hala, zientzian oinarrituta hainbat erabaki hartzeko modua sustatzeko.

Sailburuak “espezializazio adimenduna” defendatu zuen garraio eta mugikortasun jasangarriaren arloan. Horren baitan, hiru euskal hiriburuen arteko konektibitatea sustatzean oinarritutako estrategia bat ari da garatzen Euskadi, Europako korridore atlantikoaren barneko euskal trenbide sare berriaren eta hiri garraioaren elektrifikazioaren bitartez, Parisko Akordioak Klima Aldaketari buruz finkatutako helburuekin bat etorrira.

4. Azkenik, Euskadik jarraipena egiten die **EL barneko hainbat talde artekoren** jardueri. Hainbat gairi buruzkoak izaten dira; esaterako:

- REGLEG-CALRE talde artekoa (Legegintza Eskumenak dituzten Eskualdeak eta Legegintza Eskumenak dituzten Parlamentuak);
- Automobilgintza industriaren talde artekoa;
- Osasunari buruzko talde artekoa.

III.2. Euskadik Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordearen Lantaldeetan duen parte hartzea

Europar Batasunaren inguruko Gaietarako Konferentziaren Akordioen babespean parte hartzen du Euskadik Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordearen Lantaldeetan.

Autonomia erkidegoek europar gaietan duten parte hartzea izaera horizontaleko bide bikoitz batetik bideratzen da, eta horretan parte hartzen du Euskadik:

- Europako Erkidegoetako Gaietarako Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Aldebiko Lankidetzaren Batzordea
- Europar Batasunaren inguruko Gaietarako Konferentzia (EBGK)

2016an zehar, ez dute deitu Aldebiko Batzordearen bilerarik. Batzorde horri buruz horixe bera jaso zen 2014ko, 2015eko eta 2016ko txostenetan.

Europar Batasunaren inguruko Gaietarako Konferentzia (EBGK), Estatuko Administrazio Orokorreko eta autonomia erkidegoetako ordezkariak biltzen dituen, erakunde horiek Europako Erkidegoaren gaietan parte hartzeko erabil ditzaketen sistemak modu horizontalean egituratzen dituen foroa da.

2016an zehar, eta aurreko ekitaldietako joerari eutsiz, EBGK-k ez du inolako jardunik izan ia. Hala, Konferentziaren Osoko Bilkura ez da bildu 2011ko otsailaren 7az geroztik, nahiz eta haren barne araudiak ezartzen duen gutxienez urtean bi aldiz egin behar duela bilera. Eta Konferentziaren lan organoa ere, Koordinatzaileen Batzorde izenekoa, ez da bildu 2016 osoan.

Horrek guztiak nolabait erakusten du Estatuko Gobernuak ez duela interesik autonomia erkidegoen parte hartzea indartzeko Europar Batasunaren gaietan, nahiz eta Gobernuaren jardunaren agendan sartuta egon behar luketen, euren eskumenak eta interesak kontuan hartuta.

Konferentziaren baitan, badira bi gai jarraian garatuko direnak, parte hartze autonomikoarekin zerikusia dutelako eta, are zehatzago, hainbat inplikazio dituztelako Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek Europar Batasunean gauzatzen dituzten jardueretan.

1. Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek Europar Batasuneko Kontseiluan duten parte hartzea

EBGKren 2004ko Akordioen arabera, gaur egun autonomia erkidegoek EBko Kontseiluaren lau tantaldetan parte har dezakete: Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak (EGPOK); Nekazaritza eta Arrantza; Ingurumena, eta Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirola (HGKK). Era berean, parte hartze autonomikoa onartzen dute Lehiakortasun Kontseiluaren baitako Jokoa eta Kontsumoa arloek, eta Euskadiren kasuan, Ekonomia eta Finantza Kontseiluaren (ECOFIN) zenbait lantaldek.

Kontseiluko parte hartze eta ordezkaritza autonomikoko sistemak bide bat eskaintzen die autonomia erkidegoei, euren interesak defendatzeko eta Kontseiluko negoziazio prozesuan eragina izateko, jorratu beharreko gaiak begirako jarrera komuna hartu aurretik, eta, hala badagokie, zuzenean esku har dezakete Kontseiluaren saioan.

2016ko bigarren seihilekoan, Eslovakiaren eskuetan zela Europar Batasunaren presidentetza, Euskadi arduratu zen autonomia erkidegoek EBko Kontseiluaren Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirola atalean zuten parte hartzea koordinatzeaz, bai hezkuntzaren arloan, bai kulturarenean, izan Osoko Bilkuran, izan lantaldeetan *ad hoc*.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia elkarlanean aritu ziren seihileko horretan, ordezkaritza horretan jarduteko.

4. eranskinean kontsulta daitezke koordinazioko seihilekoan lantaldeek egindako bileren datak.

Zuzenketa eta ekarpen horiei esker, nabarmendu egin da, adibidez, eskualdeek zer nolako eginkizuna duten bai diplomazia kulturalerako Europako Estrategian, baita Europako Kultura Ondarearen Europar Urteari (2018) begirako erabaki testuan ere.

Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua Kontseiluan mintzatu zen, euskaraz, 2016ko azaroaren 22an, eta autonomia erkidegoen artean adostutako jarrera komuna agertu zuen.

Bestalde, 2016an zehar ere parte hartu da Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Gaietarako Batzordearen (ECOFIN) lantaldeetan. Foro horietako parte hartzea Zerga Koordinaziorako Organoak zuzentzen du; bertan bilduta daude bai Eusko Jaurlaritza, bai hiru foru aldundiak.

Aurreko urteetako txostenetan adierazita zegoen moduan, Euskadik lantaldeetan bakarrik parte hartzen du; Kontseiluko erakunde horren Osoko Bilkuran ez dago euskal partaidetzarik.

Euskal Autonomia Erkidegoak honako lantalde hauetan parte har dezake:

1. Zerga Gaietako D4 Taldea, bi erakundetan zatituta dagoena: zuzeneko zerga sistema eta zeharkako zerga sistema;
2. Jokabide Kodearen D5 Taldea, enpresen zerga sistemari eta dagokien azpitaldeari buruzkoa.

2016an zehar, ECOFIN Kontseiluaren lantaldeen 39 bileratan parte hartu dute euskal erakundeek, eta bilera horien datak **4. eranskinean** kontsulta daitezke.

Gainerako autonomia erkidegoei parte hartzen uzten dieten Europar Batasuneko Kontseiluaren gainerako erakundeei dagokienez, parte hartze horri jarraipena egiteko eta autonomia erkidegoen jarrera komunari ekarpena egiteko ohiko eginkizunak bete dira.

2. Gobernuak Europako Batzordearen lantaldeetan duen parte hartzea

Autonomia erkidegoek Europako Batzordearen lantaldeetan izan dezaketzen parte hartzeari buruzko akordioen arabera, une honetan 2014-2017 partaidetza aldian gaude. 2016. urtean zehar, zehazki, Euskadik ordezkari-tza autonomikoa izan du Nekazaritza Funtsen Lantaldean, Ekoetiketaren Lantaldean, Hiriko Hondakin Uren Lantaldean eta Itsas Segurtasunerako eta Itsasontzien Kutsaduraren Prebentziorako Lantaldean.

Halaber, Euskadik ordezkari-tza autonomikoa izan du Horizon 2020 Lantaldeetako batzuetan; lantalde horietako ordezkari-tza aldia ez dator bat gainerako lantaldeetakoarekin, ordezkari-tza geroago antolatu baitzen autonomia erkidegoen artean.

Hortaz, 2016ko maiatzetik 2017ko maiatzera bitarteko aldian, Euskadik H2020 Lantalde hauetan izan du ordezkari-tza autonomikoa:

- Horizonte 2020 – Ikerketako eta Berrikuntzako Esparru Programa (2014-2020) gauzatzeko erabiltzen den Programa Espezifikokoaren Lantaldea - "Osasuna, aldaketa demografikoa eta ongizatea" taldea
- Horizonte 2020 – Ikerketako eta Berrikuntzako Esparru Programa (2014-2020) gauzatzeko erabiltzen den Programa Espezifikokoaren Lantaldea - Talde estrategikoa
- Horizonte 2020 – Ikerketako eta Berrikuntzako Esparru Programa (2014-2020) gauzatzeko erabiltzen den Programa Espezifikokoaren Lantaldea - "Ikerketarako azpiegiturak" taldea
- Horizonte 2020 – Ikerketako eta Berrikuntzako Esparru Programa (2014-2020) gauzatzeko erabiltzen den Programa Espezifikokoaren Lantaldea - "Ikerketarako Kontseilu Europarra (IKE), Etorkizuneko Teknologiak eta Goranzkoak (FET) eta Marie Skłodowska-Curie Ekintzak (MSCA)" taldea

- Horizonte 2020 – Ikerketako eta Berrikuntzako Esparru Programa (2014-2020) gauzatzeko erabiltzen den Programa Espezifikoaren Lantaldea - "Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT)"
- Horizonte 2020 – Ikerketako eta Berrikuntzako Esparru Programa (2014-2020) gauzatzeko erabiltzen den Programa Espezifikoaren Lantaldea - "Klimaren aldeko ekintza, ingurumena, baliabideen eraginkortasuna eta lehengaiak " taldea
- Horizonte 2020 – Ikerketako eta Berrikuntzako Esparru Programa (2014-2020) gauzatzeko erabiltzen den Programa Espezifikoaren Lantaldea - "Espazioa" taldea
- Horizonte 2020 – Ikerketako eta Berrikuntzako Esparru Programa (2014-2020) gauzatzeko erabiltzen den Programa Espezifikoaren Lantaldea - "Garraio adimenduna, ekologikoa eta integratua" taldea

H2020 Lantaldeetan parte hartzeko izendatutako ordezkari autonomiko guztiek koordinazio bilera egin zuten Madrilen, Ministerioan, 2016ko maiatzaren 5ean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, eta badakigu bilera horren ostean lantalde horien beste 31 bileratan izan direla, guztira, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Parte hartzearen balorazio oso positiboa izan da.

III.3. Gobernuaren egintzatik eratorrita Europar Batasunean egindako jardunak

Jarraian, 2016an zehar Europar Batasuneko erakundeetan izandako euskal jardunaren gertaera nagusiak zehaztuko dira, jardun mota errepikatuenen arabera eta kontuan hartuta Euskadiren eskumenei dagozkien gaiak, baita Europako Erkidegoaren esku hartze arloei dagozkienak ere.

1. Bisita instituzionalak

Atal honetan zehaztuta daude, hurrenkera kronologikoan, Europako Erkidegoaren hiriburura (eta beste toki batzuetara) egindako bisita instituzionalak, garrantzitsuentzat jotakoak.

- Urtarrilaren 27an, lehendakariak Abangoardiako Ekimeneko “Fabrikazio aurreratua aurkako inguruneetako energia aplikazioetarako” proiektu pilotuaren erronka industrialei eta ibilbide orri teknologikoari buruzko mintegiaren irekiera hitzaldia eman zuen Eskualdeetako Lantaldearen egoitzan. Mintegia enpresek gaur egun dituzten erronken gainean eta soluzio teknologiko posibleen gainean eztabaidatzeko foroa izan zen.
- Otsailaren 2an, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak eta Bilboko Udaleko zenbait ordezkariak ISTEPS (lankidetzaren deszentralizaturako aliantza berriak) proiektuaren jarraipen bileran parte hartu zuten, Nazio Batuen ART Programaren koordinaziopean.
- Otsailaren 3an, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuordeak eta alorreko zuzendariak zenbait bilera egin zituzten Europako erakundeetan. Lanbide heziketari buruz hitz egiten zuten, baita Skills Agenda izeneko agenda berriari buruz eta Europako enpresa sektore ekonomikoaren nahiz manufakturaren espezializazio premiei buruz ere.
- Otsailaren 24an, Abangoardiako Ekimena sarearen urteko bilera politikoa egin zen. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburuak modu aktiboan parte hartu zuen bilera hartan, hitzaldi bat emanez Jyrki Katainen Europako Batzordeko presidenteordearen aurrean, Markku Markkula Eskualdeetako Lantaldeko presidentearen aurrean eta aipatu sareko eskualde kideetako ordezkari politikoen aurrean.
- Ekainaren 1etik 3ra bitarte, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak Unibertsitatea-Enpresa Europako Foroan esku hartu zuen. Foro hori Finlandian egin zen, eta Europako Batzordeak antolatu zuen.
- Ekainaren 14an, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria berriro izan zen Europako erakundeetan, eta Euskadiko Ordezkaritzak antolatutako konferentzia batean hitz egin zuen; tokiko nahiz eskualdeko agintariak 2030aren osteko agenda globalean duten eginkizunari buruzko konferentzia izan zen.

- Uztailaren 14an, Hizkuntza Politikako sailburuordea T. Navarcsics Hezkuntza eta Kulturako europar komisarioarekin bildu zen, Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sareko (NPLD) presidente gisa.
- Irailaren 28an, “Eskualdeen Goi Bilera” egin zen, Bavariako estatuak Bruselan duen ordezkartzan. Bilera haren xedea zen EBko eskualde guztietarako kohesio politika bat babestea. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak ordezkatu zuen Eusko Jaurlaritza.
- Urriaren 10ean, Bizitza Osoan Zeharreko Prestakuntzarako Eskualdeko eta Tokiko Agintarien Europako Elkartearen (EARLALL) Lantalde Gidaria bildu zen, Euskadi buru duena. Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako zuzendariak parte hartu zuen bertan.
- Urriaren 11n eta 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen arloko zuzendari nagusiak eta Kanpo Harremanen arloko zuzendari nagusiak bilerak izan zituzten Asilo eta Immigrazioaren arloko Eskualdeko eta Tokiko Agintarien Sareko (ERLAI) ordezkariekin, Europako Batzordeko Migrazio eta Barne Gaietarako Zuzendaritza Nagusiko ordezkariekin eta Eurocities eta CEMR (tokiko eta eskualdeko agintariak) sareetako ordezkariekin.
- Urriaren 19an eta 20an, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako zuzendariak Lanbide Heziketarako Euskal Estrategia aurkeztu zuen, EBko lanbide heziketaren arloko zuzendarien urteko bileran, zeina egin baitzen Bratislavan.
- Urriaren 27an, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordeak esku hartu zuen, lehen aipatutako NPLD Europako sareko presidente gisa, ekonomiari eta hizkuntza politikari buruzko Europako konferentzian, eta sare horretako jarraipen lantaldearen bileran nahiz Batzarrean parte hartu zuen.
- Azaroaren 7an eta 8an, Abangoardiako Ekimenaren goi mailako bilera izan zen. Euskadiren kasuan, SPRIk modu aktiboan parte hartu zuen Europako Parlamentuko eta Europako Batzordeko kideekin egindako bileretan.
- Azaroaren 9an, Kulturako sailburuordeak zenbait bilera izan zituen Europako erakundetan; bilera egin zuen, adibidez, Silvia Costa eurodiputatuarekin (Europako Parlamentuko Kultura Batzordeko presidentea), baita unitate buruekin ere, eta Europako Batzordeko Zuzendaritza Nagusietako ordezkariekin (Hezkuntza eta Kulturako eta Hazkundeko zuzendaritzetakoak, hain zuzen) nahiz Kultura Institutu Nazionalen Europako Sareko (EUNIC Global) zuzendariarekin.
- Azaroaren 21ean eta 22an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak esku hartu zuen EBko Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Kirol Kontseiluan. Hori zela eta, bilerak egin zituen Estatuko Administrazioako agintariarekin, EFQM Kalitatearen Nazioarteko Ziurtagirien Agentziako zuzendariarekin, eta Navarcsics komisarioarekin (Hezkuntza, Gazteria eta Kultura) eta Thyssen komisarioarekin (Enplegua eta Gizarte Gaiak) ere bildu zen.

- Azaroaren 28an, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordeak, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarekin batera, Elikagaien Gastronomiarako Eskualde Europarren Sarea (REGAL) aurkeztu zuen, Bruselan, Nafarroako, Lombardiako eta Liguriako ordezkari politikoekin batera egindako ekitaldi batean.
- Abenduaren 1ean, IKANOS ekimenaren Eusko Jaurlaritzako arduradunak eta Mondragon Unibertsitateko errektoreordeak Europako Batzordeko Digital Skills and Jobs Coalition delakoan parte hartzeko gonbidapena jaso zuten.
- Abenduaren 8an, Etxepare Institutuko zuzendaria EUNIC Global/international sarearen Biltzar Orokorrean parte hartzera gonbidatu zuten (sare horrek hainbat kontinentetan presentzia duten EBko Kultura Institutu Nazionalak biltzen ditu).

2. Euskadiko errealitateak Europan duen proiektzioa eta Europako Erkidegoan gaurkotasunezkoak diren gaietan duen posizionamendua

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren iritziz, Euskadiko errealitatea Europan proiektatzeko modu onenetako bat errealitate hori zuzenean ezagutzera ematea da.

Madriilen akreditatuta dauden Europar Batasuneko estatu kideen Kidego Diplomatiakoak azterketa bidaia bat egiten du urtero Estatuko autonomia erkidego batera. 2016an, EBko Kontseiluaren sei hileko presidentetza Herbeherei zegokienean, Herbehereetako enbaxadore Matthijs van Bonzelek azterketa bidaia hori Euskadira egitea proposatu zuen, 2016ko ekainaren 5etik 7ra bitarte. Aukera hori ezin hobeto egokitzen zen Idazkaritzaren estrategiara.

Hala, bisita horretarako agenda Hiru Lurralde Historikoetan garatu zen:

- Ekainaren 5ean, Donostian egin zen izaera kulturaleneko programa, eta bertan egin ziren lehendakariak harrera ofiziala.
- Ekainaren 6an, izaera instituzionalagoa izan zuen agendak, Eusko Legebiltzarra bisitatu baitzuten.
- Amaitzeko, ekainaren 7an, Bilbon gauzatu zuten arlo ekonomiko eta unibertsitarioko programa.

Kidego Diplomatikoko ordezkarien artean, hainbat estatu kideetako hamabi enbaxadore, sei ministro kontseilari eta hiru negozio arduradun hurbildu ziren Euskadira, baita Europako Batzordearen Madrilgo Bulegoko zuzendaria ere.

Euskadik berriro parte hartu zuen “Open Days/Eskualde eta Hirien Europako Astea” ekimenean, Europako eskualde eta hirietako jardunbide egokien eztabaidarako eta trukerako urteroko hitzorduan. 2016ko edizioak 6.000 pertsona baino gehiago bildu zituen

4 egunez, eta 200 bat tailer eta mintegi egin ziren Europako hainbat eskualde eta erakunderen egoitzetan. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia (KHIN) izan zen buru zenbait ekimenetan, helburutzat hartuta Euskadi RIS3 espezializazio adimenduneko eta abangoardiako lurralde gisa posizionatzea, hiri adimendunetara (Smart Cities) eta industria kultural nahiz sormenezkoetara aplikatuta. KHINrekin batera, aste horretan parte hartu zuten SPRIko ordezkariak, energiaren arloko trakzio ekimenak aurkeztuz, baita euskal aldundietako eta udaletako ordezkariak ere, eta Europako EARLALL sareak (hezkuntza arloratxikiak), Euskadi buru zuenak.

Hezkuntzaren arloan, hertsiki lan egin da Europako Batzordearekin eskualdeek unibertsitatea-enpresa ardatzean duten rola inguruan, eta unibertsitateek Espezializazio Adimendunetarako Euskal Estrategian duten eginkizuna finkatu da. Europako Batzordeak arlo horretako hainbat ekimenetan sartu du Euskadi, eta euroeskualdeko ezagutza lurralde gisa posizionatu du.

Euskal unibertsitateek, bestalde, goi mailako hezkuntzaren modernizazioari buruzko kontsulta publikoan parte hartu dute, zeinak markatu baitu Europako agenda 2016an. 2017. urtean, horri buruzko europar estrategia eguneratu bat aurkezten da.

Lanbide Heziketaren Europako Astearen lehen edizioaren baitan, Euskadiko Lanbide Heziketako zentroek modu aktiboan parte hartu dute. Arlo horretan, Europar Sari bat eman diote Petronorren eta Somorrostro Lanbide Heziketako Zentroen (Bizkaia) arteko aliantzari prestakuntzaren eta ikaskuntzaren eremuan. Eusko Jaurlaritzak, aurreko urteetan bezala, lankidetzat sendoa izan du Europako Batzordeak lanbide heziketaren arloan dituen hainbat zerbitzuekin.

Lanbide heziketak eta goi mailako hezkuntzak Europako proiektuetan duten inplikazioari dagokionez, Europako zenbait foro eta proiektutan lehentasuna eman zaie espezializazio eremuei, hala nola itsas arloko ikasketei (“blue print” deialdian aurkeztutako proiektua) eta manufaktura aurreratuari (Euskadiren inplikazioa EUROFOUND/Europako Batzordea buru duen Europako proiektuen). Era berean, hainbat ekintza gauzatu ziren Europako Parlamentuan eta Europako Batzordean LHko euskal estrategia New Skills Agenda izeneko etorkizuneko europar agendan posizionatzeko.

Kulturaren arloan, nabarmentzekoak dira Donostia – 2016ko Kulturaren Europako Hiriburu ekimenaren baitako jarduerak. Kulturaren ahalmen ekonomiko eta berritzailea finkatu egin da Euskadin, zeinak CREADIS3 proiektua onartu duen, Europako beste 5 kiderekin elkarlanean. Proiektu hori 2021ean amaituko da, eta helburutzat du industria kulturalen eta sormenezkoen arloan eskualde nahiz lurralde estrategiak martxan jartzea, espezializazio adimenduneko eskualde estrategiekin lerrokatuta.

Era berean, Euskadi Europako jardunbide egokiak darabiltzan lurralde bilakatu da, Eusko Jaurlaritza - ELKARGIk eta Triodos Bank erakundeak akordioa egin baitute kultura eta sormenaren sektorerako finantzaketa lortzeko. Europako Batzordeak, Europako Inbertsio Bankuak (EIB) eta Inbertsioen Europako Funtsak (IEF) abian jarri dute Creative Europe

izeneko tresna finantzarioa, eta horren lehen deialdian (2016an egina) aukeratutako lehenengo ekimenetako batean sartu dago Euskadi.

Etxepare Institutuak parte hartuko du diplomazia kulturalako etorkizuneko Europako Estrategian, 2017an finkatu beharrekoan, eta sendotu egin du sarean duen zeregina, modu aktiboan parte hartuz Europako proiektuetan eta harreman zuzena mantenduz UNESCOrekin.

Enplegu Politikaren eta Gizarte Politiken arloan, eta zehazki Kontseiluak iraupen luzeko langabetuak lan merkatuan txertatzeari buruz 2016ko otsailaren 15ean emandako Gomendioaren ezarpenari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak Europako Batzordeari jakinarazi zion nola ari zen betetzen Gomendio hori Euskal Autonomia Erkidegoan. Horretarako, datu kuantitatiboak aurkeztu zizkion Batzordeari, baita iraupen luzeko langabetuentzat ezarritako integrazio estrategiak ere (bakarkako orientaziorako zerbitzuak, taldekako orientaziorako zerbitzuak, prestakuntzarako eta kontrataziorako ekintzak), eta lan metodologiak (enplegarritasunaren bakarkako balorazioa, diru sarrerak bermatzeko errenta (DBE) eta horren lotura Inklusio Hitzarmen baten ezarpenarekin, eta enplegu zerbitzuen eta udaletako gizarte zerbitzuen arteko lankidetzarako akordioa).

Ildo berean, LANBIDEk bi mintegitan parte hartu zuen Bruselan, maiatzaren 12an bata eta urriaren 11n bestea; bertan, hezkuntza prestakuntza baxua izategatik bazterkeria arriskuan dauden biztanle helduen enplegarritasunarekin eta inklusioarekin lotutako jarduerak aurkeztu zituen. Jarduera horiek, zehazki, gaitasunak ebaluatzea eta horiek areagotzeko ikastaro egokituak egitea dira. Lehenengo mintegia EARLALL sareak (Bizitza Osoan Zeharreko Prestakuntzarako Europako Sarea) antolatutako saio baten baitakoa zen, eta bigarrena, aldiz, Europako Batzordeko Enplegu, Gizarte Gai eta Inklusioko Zuzendaritza Nagusiak antolatu zuen.

Era berean, urriaren 27an eta 28an, Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioarekin elkarlanean, aurkezpen bat egin zuen Europako Batzordeak antolatutako mintegi batean. Bertan, enplegarritasunaren diagnostikoa aurkeztu zuen; LANBIDEk kudeatzen duen DBEren ordainketak nola egiten diren azaldu zuen, eta LANBIDEren eta gizarte zerbitzuen arteko lankidetzak deskribatu zuen. Aurkezpen horren xedea zen Espainiako estatuko enplegu zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen arteko koordinazioari buruzko esperientziak trukatzeko eta bi zerbitzuen arteko konexioa hobetzen laguntzea. Ildo horretan, LANBIDEren esperientzia arrakastatsutzat jo zen, Batzordeak sustatzen duen Eskubide Sozialen Europako Pilareari ekarpena egin diezaiokeen esperientziatzat.

2015. urtearen amaieran, Aldaketa Demografikoaren gaineko Ituna bultzatu zen Eskualdeetako Lantaldean, Europako Batzordearen eta AFE-INNOVNET Sare Tematikoaren babesarekin. Itun horren helburua da zahartze aktibo eta osasuntsua bermatzeko mesedegariak diren inguruneen garapenarekin konprometituta dauden tokiko zein eskualdeko agintarien inplikazioa lortzea, bizi itxaropen osasuntsua luzatzen lagun dezaten, baita adinekoen bizitza independentea eta ongizatea hobetzen ere, eta adin guztietarako gizarte bat sor dezaten. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak itun horrekiko atxikimendua izenpetu zuen 2016ko urtarrilaren 29an.

2016. urtean, Klima Aldaketaren arloan, 2015eko abenduan Parisen egindako Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioko Aldeen Konferentzian –COP21– hartutako akordioak markatu du Europako agenda. Konferentzia horretan lortutako emaitzei eta 2030era arteko Energia eta Klima Aldaketaren Europako Paketearen ezarpenari jarraipena egiteaz gain, hainbat konferentzian parte hartu da, Euskadi klima aldaketaren aurkako borrokan konprometitutako eskualde gisa posizionatzeko, berotegi efektuko gasen emisioak murriztera eta energia garbiak lortzera bideratutako politika asmo handikoei esker.

Lankidetzaren Politikaren arloan, 2016. urtean Euskadik modu aktiboan parte hartu du Europako lankidetzaren politikaren etorkizunari buruzko kontsulta publikoan, eta jardunbide egokiak izan ditu Garapen Jasangarriko Helburuen gainean kontuak emateari dagokionez. UCLGk eta NBEk lankidetzaren eta politika koherentziaren arloko aliantza berrietan jarrera proaktiboa duen lurraldetzat aitortu dute Euskadi.

Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren politika nabarmendu egin dute Nazio Batuen ART- UNDP Programaren urteko txostenean, eta Euskadik I-STEPS programaren jardueretan parte hartzen jarraitu du, bai Ekuadorren, bai Libanon. Halaber, UCLG sarearen (Hirien eta Tokiko nahiz Eskualdeko Gobernuen Mundu Sarea) taldean parte hartzera gonbidatu dute; sare horrek eskualdeek kontu ematean eta lankidetzaren deszentralizatuan betetzen duten eginkizunari buruzko txosten bat idatzi du, eskualdeen presentzia txertatuz eta indartuz.

Euskadik 2016an zehar gai horri begira izandako posizionamenduaren adibideetako batzuk honako hauek dira: garapenerako lankidetzako prozesu berritzailei buruzko konferentzia estrategiko bat antolatu zuen Europako zein nazioarteko kideekin, eta konferentzia horretatik eratorrita ekarpena egin zitzaion Europako Batzordea Europako lankidetzaren politika berrikusteko prestatzen ari zen dokumentuari; Lankidetzarako Euskal Agentziak gonbidapena jaso zuen ELGAK antolatutako ekimen batean parte hartzeko, eskualdeek garapenerako lankidetzaren arloan eta lankidetzarako eredu berritzaileen arloan dituzten jardunbide berritzailei buruzko ekimen batean, hain zuzen; URA – Uraren Euskal Agentziako zuzendariak uztailaren 5ean Parisen egindako Lankidetzarako Nazioarteko Foroan esku hartu zuen, Europako eskualdeen izenean; eta GLEAK lankidetzaren deszentralizaturako lankidetzaren konferentzia bat antolatu zuen, urtarrilaren 26rako, eta Europako Batzordeko hizlari bat izan zen bertan.

3. Txosten interesgarri jakin batzuk lantzeko balio izan duten beste bisita eta topaketa batzuk

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik euskal politikako eta ekonomiako hainbat sektore nabarmenentzat interesekoak izan diren ehundik gora bilera eta topaketa antolatu dira Europako erakundeetako nahiz bestelako elkarteetako ordezkariekin, helburutzat hartuta iritziak eta esperientziak trukatzeko, harreman interesgarriak ezartzea eta euskal interesak posizionatzea.

Estatuko Laguntzen txostenen kasu zehatzean, Eusko Jaurlaritzak bere jarrera babestu eta jakinarazi du Jaurlaritzaren jardute arloetan eragina duten espedienteetan, hala nola: (i) arrantzaren arloan, Indiako Ozeanoan diharduten atunketarien segurtasuna bermatzeko laguntzak; (ii) industriaren arloan, Kanpo Ekarpenetarako Gauzatu laguntza programa eta Euskadiko enpresa ertain eta txikiak berregituratzeko Bideratu laguntza programaren luzapena eta aldaketa, eta azkenik (iii), hizkuntza politikaren arloan, gaztelaniazko hedabideetan euskara sustatzeko laguntzak.

Lurreko telebista digitalaren hedapenerako laguntzei dagokienez, erabakia gauzatzeko prozesuaren jarraipena egin da, baita Europako Batzordearen Erabakiaren aurka EBJAren aurrean aurkeztutako helegitearena ere.

Azkenik, 2016an Euskadirentzako interesgarriak diren bi espediente itxi dira: futbol talde batzuentzako zerga laguntzena eta Athletic Club Bilbao taldearentzako laguntza posiblearena (San Mames Barria eraikitzeko).

4. Esku hartzeak gaurkotasunezko konferentzia eta eztabaidetan. Euskadirentzat interesekoa den informazioa ardatz duten ekimenak zein bilerak antolatzea eta horietan parte hartzea

5. eranskinean euskal erakundeen parte hartzea izan duten hitzaldi, ekitaldi eta eztabaida guztiak daude zehaztuta, baina jarraian gure ustez garrantzitsuenak izan direnak aipatuko ditugu.

Azaroaren 28an eta 29an, Europako Gaietarako Zuzendaritzak ikastaro bat antolatu eta eskaini zuen, HAEErekin lankidetzan, EBk Estatuko Laguntzen gainean ezarrita duen araudiari buruz eta herri administrazioek estatuko laguntzak Europako Batzordeari jakinarazi eta komunikatzeko erabili behar dituzten prozedurei buruz. Europako Batzordeko Lehiakortasunaren Zuzendaritza Nagusiko bi hizlarik parte hartu zuten.

Enpleguaren eta Gizarte Politiken arloan, Batzordeko Enplegu, Gizarte Gai eta Inklusioko Zuzendaritza Nagusiko ordezkari bat izan zen Eusko Jaurlaritzak Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 dokumentua prestatzeko antolatutako lan jardunaldian, Bilbon, apirilaren 13an. Jardunaldi horretan, Enpleguaren Europako Estrategia 2020 dokumentua eta Europarako Gaitasunen Agenda Berria aurkeztu zituen Jaurlaritzak. Jarduera horren osagarri, Eusko Jaurlaritzako zenbait ordezkari Bruselan izan ziren ekainaren 20an, Europako Batzordeak Europarako Gaitasunen Agenda Berria aurkezteko egin zuen ekitaldian.

Migrazio Politikari dagokionez, ekainaren 13an eta 14an, arartekoak, Manuel Lezertuak, *European Network of Ombudsmen* sareak antolatutako konferentzia batean parte hartu zuen; Europak besteak beste errefuxiatuei begira dituen erronkei buruzko konferentzia izan zen.

Bestalde, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak Gipuzkoako SOS Arrazakeria hautatu zuen migrazioarekin lotutako Gizarte Zibila 2016 sarirako, “La familia de al lado/Bizilaguna” proiektuarengatik. Sariaren helburua zen migratzaileen bizi baldintzak hobetzeko eta horien gizarteratzea sustatzeko lan egiten zuten pertsona zein erakundeak aintzatestea. Gipuzkoako SOS Arrazakeria elkarteko zenbait ordezkari joan ziren sari banaketara, zeina egin baitzen Bruselan, abenduaren 15ean.

Ekainaren 1ean eta 2an espezializazio adimenduneko plataformaren (S3P) Smart Regions ekitaldian parte hartu zen, Europako Batzordeko zenbait zuzendaritza nagusiren (DG AGRI, DG RTD, DG GROWTH) eta Ikerketa Zentro Bateratuaren (JRC, ingelesezko siglak) baterako ekimen batean. Plataforma horren helburu nagusia da energiaren, modernizazio industrialaren eta nekazaritzako elikagaien arloetako Kohesio Politikaren funtsak modu hoberenean eta eraginkorrean har daitezela laguntzea, eta sektore horietan berrikuntza jarduerak hobeto lerrokatzea maila nazionalean, eskualdekoan eta tokikoan, EBren politiken lehentasunak modu errentagarrienean bultzatuko dituzten teknologia eta soluzio berritzaileak identifikatuz.

Testuinguru horretan, Euskadik Smart Regions ekitaldian presentzia izan zuen, eskualdeko jardunbide egokien erakustaldian; stand bat jarri zuen, eta RIS3 proiektuaren aurrerapenak aurkeztu ahal izan zituen, baita Windbox Fabrikazio Aurreratu Eolikoko Zentroa ere.

Abenduaren 15ean, Euskadik kohesio politikaren etorkizunari buruzko bilera murriztu batean parte hartu zuen, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren bidez; bilera hura Corinna Cretu komisarioaren kabineteko buruarekin egin zen, CPMRren deialdi baten baitan.

Ikusi **5. eranskina**.

5. EBrekin zerikusia duten sareetan, erakundeetan eta foroetan egindako lana

“Abangoardiako Ekimena”, zeinaren sortzaileetako bat den Euskadi, 30 eskualde kidek osatzen dute gaur egun. Ekimen horrek berekin dakar gure politika industrialaren eta berrikuntza politikaren ardatzean espezializazio adimendunaren estrategia kokatzeko konpromisoa, horren helburu izanik lehiakortasuna eta hazkundera bultzatzea, baita enplegu sorrera ere.

2016an zehar, Euskadik Abangoardiako Ekimenaren Lantalde Gidariko kide izaten jarraitu du, baita horren baitako taldeetako kide ere (komunikazioa, eragin politikoa, proiektu pilotuen jarraipena, etab.). Halaber, hertsi-hertsian lanean jarraitu dugu espezializazio adimenduneko plataformekin lotura duten Europako Batzordeko zenbait zerbitzuekin: Joint Research Centre – JRC–; Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusia –DG REGIO–; Barne Merkatu, Industria, Ekintzailetza eta Enpresa Txiki zein Ertainen arloko Zuzendaritza Nagusia –GROW–, eta Ikerketa, Zientzia eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia –RTD–.

Bestalde, Euskadik, SPRIren eta Energiaren Euskal Klusterraren eskutik, Abangoardiako Ekimenaren baitako ekintza pilotu baten buru izaten jarraitu du, Eskoziarekin batera. Ekintza horretan bilduta daude berrikuntzaren arloko hainbat eragile, Nafarroakoak, Andaluziakoak, Asturiaskoak, Dalarnakoak, Emilia-Romañakoak, Flandriakoak, Lombardiakoak, Portugalgo iparraldekoak, Skaniakoak, Ostrobotniakoak eta Danimarkako hegoaldekoak. Ekintza pilotu horrek “Fabrikazio aurreratua aurkako inguruneetako energia aplikazioetarako” du izena, eta helburutzat du Europar Batasuna munduko aurrendari bilakatzea itsas energia berriztagarrien eta off-shore energiaren sektorerako tresna eta osagaien fabrikazioan.

Eskozia eta Euskadi buru dituen ekintza horrez gainera, Euskadik "Fabrikazio Eraginkorra eta Jasangarria" proiektu pilotuan eta bio-ekonomiari buruzko proiektu pilotuan ere parte hartzen du.

Bestalde, Europako Batzordearekin batera finantzaturako Interreg Europe "S34GROWTH" proiektuaren esparruan, Eusko Jaurlaritza aztertzen ari da, Abangoardiako Ekimeneko hamar eskualdeko talde batekin, nola hobetu daitezkeen eskura dauden lankidetzak tresnak industria sektorean berrikuntza bizkortzeko.

Euskadi buru duen Initiative for Culture and Creativity (RICC) Eskualde Sareari dagokionez, nabarmentzekoa da 2016. urtean Europako erakundeen erreferentziazko sare bilakatu dela eskualdeek industria kultural eta sormenezkoa sustatzeko duten ahalmenaren

eremuan. Sare horrek harreman zuzena du Europako erakundeekin eta eskualdeekin, eta lotuta dago Smart Specialisation europar agendak egiten duen kulturaren eta sormenaren babesarekin. Sare horri lotuta, Euskadi buru duen CREADIS3 proiektuaren finantzaketa lortu da.

Lanbide heziketari dagokionez, Euskadik izan du EARLALL Europako Sarearen (Bizitza Osoan Zeharreko Prestakuntza) presidentetza, eta aholkularitza eta laguntza eman zaizkio.

Era berean, aipatu beharra dago Euskadik Europako Lurraldeetako Ikerketa eta Berrikuntza Sarearen (ERRIN) gobernu organoetan parte hartzen duela, fabrikazio aurreratuko lantaldearen buru dela, energiaren arloko taldearen lantalde gidarian parte hartzen duela eta oso partaidetza aktiboa duela hiri adimendunen taldean.

2015. urtean bezalaxe, Euskadik presidentetza izan du Network to Promote the Linguistic Diversity/NPLD hizkuntza gutxituen Europako Sarean, eta lan horretan laguntzeko zereginak gauzatu dira. Halaber, ikus-entzunezkoen sektoreko CINEREGIO Eskualdeko Funtsen Europako Sarean ere parte hartu da, eta babesak eman zaio Etxepare Institutuari EUNIC Sarean (EBko estatuko kultura institutuak biltzen ditu) parte hartzeko.

Era berean, 2016an ere Euskadi buru izan du Europako Periferiako Itsas Eskualdeetako Konferentziaren (CPMR) Lankidetzako Lantaldeak. Eginkizun hori Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren bitartez betetzen du, tartean direla Europako nahiz nazioarteko zenbait bazkide, hala nola Nazio Batuak eta GKEak zein tokiko nahiz eskualdeko agintariak biltzen dituzten plataformak.

Horrez gainera, Euskadik CPMRren Arku Atlantikoko Batzordearen lantalde guztietan parte hartzen du.

Euskadiren partaidetza duten sare tematiko guztiak jasota daude **6. eranskinean**.

6. Europako Erkidegoko zuzenbideari buruzko espedienteak jakinaraztea eta horien berri ematea

Aurretik ere adierazi denez, euskal erakundeen ohiko zereginetako batzuek eurekin dakarte, berez, Europar Batasunean jardun behar izatea. Europako Erkidegoko zuzenbidea betetzetik eratorritako betebeharrekin lotutako eginbeharrak dira, nagusiki. Gai horri dagokionez, aipatu beharra dago Europako Gaietako Zuzendaritzak Jaurlaritzako sailentzat egiten duen aholkularitza lana. Estatuko Laguntzen eta Europako Erkidegoko Zuzenbidearen Urraketa Prozeduren gaietan ematen die aholkularitza, erkidegoetan Estatuko Administrazioarekin egiten diren komunikazioen organo koordinatzailea baita EAEn.

Eremu honetan nabarmentzekoak dira Lehiaren Zuzenbidearen eta Estatuko Laguntzen baitako jarduera guztiak. Arlo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izandako laguntza espedienteak jakinarazi zaizkio Europako Batzordeari, jakinarazpena beharrezkoa izan bada, eta, horrez gainera, Batzordeari informazioa eman zaio espediente zehatzei buruzko informazioa eskatu duenean, Laguntzei buruzko datu estatistikoak helarazteaz gain. Ez da beharrezkoa izan Lehiakortasunaren Zuzendaritza Nagusiarekin Bruselan bilerak antolatzea Estatuko laguntzen gaineko espedienteak ebazteko. **7. eranskinean** Europako Batzordeari komunikatu/jakinarazi zaizkion laguntzen zerrenda ageri da.

Europako Erkidegoko Zuzenbidearen Urraketa Prozeduren arloan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik gure betebeharrak betetzen jarraitzen dugu, eta informazioa nahiz dokumentazioa igortzeaz gain, aholkularitza eman eta irtenbideak bilatzen ditugu Euskal Autonomia Erkidegoa tartean den prozedura guztietan.

7. Europako Erkidegoko gaien berri ematea eta zabaltzea

2016an, KHINren webgunea eguneratu zen euskadi.eus atarian.

Aurreko urteetan bezalaxe, ikuskatu eta optimizatu egin da Euskadin Europari buruzko informazioa zabaltzeko tresna eta atari nagusia, Europako Informazioaren Euskal Sarea (EIES), www.revie.euskadi.eus, estekatuta dagoena euskadi.eus atariarekin. Atari horren jarraipena ere egin da.

Prensa eta komunikazioari dagokionez, aurreko urteetako moduan jardun da, eta sailei zein eragile publikoei laguntza nahiz zerbitzua eman zaizkie prentsaurrekoak egiteko, adierazpenak antolatzeke eta estaldura eman nahiz prentsa oharretan jasotzeko Europako erakundeetan, Europako sareetan edo Belgikako agintarien aurrean gauzatutako ekimen zein jarduerak. Era berean, lankidetzan jarraitu dugu Europako erakundeetako prentsa eta komunikazio zerbitzuekin eta hedabideetako berriemaileekin.

VI.MUGAZ HARAINDIKO LANKIDETZA GAIETAN EGINDAKO JARDUNAK

IV.1 “Akitania-Euskadi Euroeskualdea” Lurralde Lankidetzarako Europako Taldea (LLET)

“Akitania-Euskadi Euroeskualdea” Lurralde Lankidetzarako Europako Taldea (LLET) Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 1082/2006 Erregelamenduan (uztailaren 5koa) oinarrituta sortu zen, eta aintzat hartuta 37/2008 Errege Dekretua, Erregelamendu horren aplikazio eraginkorrerako beharrezko neurriak hartzekoa (urtarrilaren 18koa); eta Euskal Autonomia Erkidegoak eta Akitania Eskualdeak 2011ko abenduaren 21ean izenpetu zituzten Hitzarmenaren eta Estatutuen bitartez gauzatu zen.

2016. urtean aldaketa nabarmena izan da Euroeskualdearen lurralde osaeran. Hala bada, 2016ko gertaera garrantzitsuenetako bat Nafarroako Foru Erkidegoa Euroeskualdera atxikitzea izan da; atxikimendu horri esker, abian jarri da berriro Akitania, Euskadi eta Nafarroaren arteko lankidetzaren historikoa, indarrean egon zena 2000. urtera arte, hau da, Nafarroak lankidetzaren hura aldeko hitzarmenetara eraldatzea erabaki zuen arte. Nafarroa 2017ko urtarrilean sartu da, formalki, Euroeskualdean, baina 2016an zehar atxikimendu hori ahalbidetzeko beharrezko lanak eta izapideak gauzatu dira.

Horrez gainera, Frantzia egindako lurralde eta administrazio erreformaren ondorioz, Akitania, Limousin eta Poitou-Charentes eskualdeak berriro elkartu dituzte, eta eskualde berri bat osatu dute, Akitania Berria izenekoa. Eskualde berri horrek eskubide osoz ordeztu du lehengo Akitaniako Eskualdea eskubide eta betebeharrak guztietan, Euroeskualde horretako partaidetza barne.

Modu horretan, Eusko Jaurlaritzak eta Akitania Berriko Gobernuak Atxikimendu Hitzarmen bat onartu dute, baita Euroeskualdearen jatorrizko Estatutuen aldaketa ere, bermatzeko Nafarroako Foru Erkidegoak parte hartu ahal izango duela LLETko gobernantza organoetan. Era berean, LLETren izena aldatu egin da, eta orain “Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea” da.

LLETren helburu nagusia da Euroeskualdea osatzen duten hiru lurraldeen garapen ekonomiko, sozial eta kulturalari mesede egingo dioten lankidetzaren ekintzak gauzatzeko. Era berean, Euroeskualdearen ordezkari izan nahi du, bai tokiko, eskualdeko eta nazioarteko instantzietan, bai Europako nahiz nazioarteko instantzietan.

Euroeskualdeak urtero egiten duen jardueraren garrantzitsuenetako bat mugaz haraindiko proiektuentzako laguntza deialdiak bultzatzea da; laguntza horiek Bidasoaren bi aldeetako erakundearen arteko elkarlana sustatzen dute.

2016an arlo hauetako proiektuak finantzatu dira:

- Kultura, hezkuntza, gazteria, lanbide heziketa, kirola eta eleaniztasuna: 250.000 euroko zuzkidurarekin, lehen deialdiaren itxieran 45 proiektu zeuden aurkeztuta. Euroeskualdeko Batzorde Exekutiboak hautaketa ahalegin handia egin behar izan du, eta 15 proiekturi eman die diru laguntza. Proiektu bakoitzari esleitutako batez besteko zenbatekoa 16.660 eurokoa izan da, gutxi gorabehera.
- Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria, energia berriztagarriak, itsasoko eta itsasbaterreko baliabideak: 200.000 euroko zuzkidurarekin, aurkeztutako 6 proiektuetatik 4 finantzatu dira. Batez besteko zenbatekoa 50.000 eurokoa izan da.

Aurkeztutako proiektuen artetik diru laguntzak jasoko zituztenak hautatzeko garaian, lehenetsuna eman zaie zenbait alderdiri. Hona hemen horietako batzuk:

- Proiektuaren interesa eta originaltasuna.
- Proiektuaren inguruan garatutako dinamizazio programaren kalitatea eta aberastasuna.
- Egituraren aniztasuna eta tartean diren eragileen lurralde ordezkagarritasuna.
- Eragileen ibilbidea.

Akitania / Euskadi Euroeskualdearen Plan Estrategikoa, 2014ko abenduaren 19an aurkeztua Hendaian, LLETren hainbat urtetarako “ibilbide orria” da. 4 lehenetsun nagusiren inguruan egituratuta dago, eta horien baitan gauzatu dira 2016ko ekitaldiko jarduera nagusiak, zenbait tresna erabiliz, hala nola hitzarmen eta partenariotza estrategikoak edo mugaz haraindiko proiektuentzako laguntzen deialdiak, aurretik aipatu ditugunak.

Partenariotza estrategikoei dagokienez, hiru lankidetzak berri izenpetu dira 2016an:

- “Aquitaine.eus”. Etxepare Institutuak eta Euskal Kultur Erakundeak egindako aliantza, euskal kultura-sortzaileen mugikortasuna eta hedapena sustatzeko Akitanian eta mugaz haraindiko harreman artistikoak sortzeko Euroeskualdean (esleitutako diru laguntza: 40.000 euro bi urtez).
- “PK (Praktika Komunitatea)”. Chambre des Métiers 64 (Gremioen Ganbera) erakundeak eta Ikaslanek zuzendutako proiektua, Euroeskualdean Lanbideen Ikaskuntzaren eta Prestakuntza Etengabearen garapena sustatzeko (esleitutako diru laguntza: 40.000 euro).
- “Zubiak”. Astean behingo euskarazko irratsaio bat sortzeko izenpetutako aliantza. Euskadi Irratiak eta France Bleu Pays Basque irratiak koproduzitutako irratsaioa (esleitutako diru laguntza: 40.000 euro).

Bestalde, 2015ean sinatutako Partenariotza Estrategikoak berriro egin dira. Honako hauek, zehazki:

- “Euroeskualdeko Erasmus programa”. Akitaniako eta Euskadiko unibertsitateen (AEN sarean bilduak) arteko aliantza, Akitaniako Unibertsitateen eta Establezimenduen Komunitateak (COMUE) gauzatua. Ikasleen mugikortasuna sustatzen du (esleitutako diru laguntza: 45.000 euro).
- “Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusa”. Euskampus Fundazioak eta Bordeleko Unibertsitateak abian duten proiektua, bikaintasuneko diziplinetan lankidetzaz garatu ahal izateko (esleitutako diru laguntza: 20.000 euro).
- “Interc”. Bihartean erakundeak (Baiona-Euskadi eta Gipuzkoako mugaz haraindiko merkataritza eta industria ganberak) eta Orkestra institutuak (Lehiakortasunerako Euskal Institutua) garatutako proiektua, xedeztat duena Euroeskualdeko klusterrak harremanetan jartzea (esleitutako diru laguntza: 20.000 euro).

Euroeskualdeko prestakuntza eta enplegu estrategia

2016ko maiatzean, “Akitania-Euskadi Euroeskualdeko enplegu arrotan garapena” izeneko proiektua hautatua izan zen POCTEFA (Espainia-Frantzia-Andorrako Lurralde Lankidetzarako Programa 2014-2020) programaren lehenengo deialdiaren baitan. Proiektuaren helburua da mugaz haraindiko enpleguaren egoera aztertzea. Proiektuaren aurrekontua 253.012 eurokoa da, eta gaur egun gauzatzen ari da, xede orokortzat duela Akitaniaren eta Euskadiren arteko aldebiko harremanek enpleguaren arloan duten egungo egoera gainditzea. Nafarroa ere parte hartzen ari da proiektuan.

2016an Euroeskualdeak izandako beste lan ildo garrantzitsuenetako bat Lanbide Heziketari buruzko Euroeskualdeko I. Jardunaldiak – PK izan ziren. Azaroaren 24an, 25ean eta 26an egin ziren, eta LLETk, CMA 64 erakundeak eta Ikaslan Gipuzkoak izenpetutako Partenariotza Estrategikoaren bidez finantzatu ziren. Europako lanbide heziketako zentroetatik, enpresetatik edo erakundeetatik iritsitako 400 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten ekitaldian (Nafarroari irekia), eta bertan izan zen Shyamal Majumdar, UNESCO-UNEVOCekeko zuzendari nagusia.

Garraioak eta mugikortasuna

2016ko maiatzean, “Transfermuga 2” proiektua hautatua izan zen POCTEFA programaren lehen deialdian. Haren helburua da, batetik, modu objektiboan garatu eta hobetzea mugaz haraindiko garraio eskaintzak, intermodalitatea eta multimodalitatea, eta bestetik, berrikuntza irekia sustatzea garraioaren arloan, bidaiarien informazioa hobetze aldera. Proiektuaren aurrekontua 839.000 eurokoa da.

Bestalde, Euskadik eta Akitaniak elkarrekin lan egin dute garraioarekin eta mugikortasunarekin zerikusia duten zenbait alderditan:

Trenbideko garraioa

- Arku Atlantikoaren sustapena: 2016ko ekainaren 1ean Jundizen egindako bilera batean, Ana Oregik eta Renaud Lagravek Atlantikoko Tren Autobidea (ATA) sortzearen alde egin zuten berriro; Jundizeko (Vitoria-Gasteiz) base logistikotik irtengo litzateke, Dourgeserantz (Frantziako iparraldea).
- SNCFren eta Euskotrenen arteko intermodalitatea hobetzea. Seinaleak eta bidaiarientzako informazioa hobetu dira Hendaiaiko geltokian.
- SNCFren eta Renferen arteko intermodalitatea hobetzea. Akitania Berria Eskualdearen lehentasunetako bat TER trenaren lineak Iruneraino luzatzea da. 2016an, ADIFen eta SNCFren arteko lankidetzari esker, bizkortu egin zen material gurpildunaren homologaziorako prozesu teknikoa. Baiona-Hendaia linean egiten ari diren lanek moteldu egiten dute hedapen prozesua.
- Hendaiaiko geltokiko proiektu multimodalaren koordinazioa: 2016an, Euroeskualdeak Hendaiaiko "PEM" azterketa (Aldageltoki Multimodala) koordinatu zuen, eta ETS/Euskotren proiektua (topo geltokia handitzea) egin zuen.

Bidaiarientzako informazioa: bidaiarientzako informazioaren Transfermuga.eus atariaz gain (2015eko apirilean jarri zutena martxan), aurrerapausoak egiten ari dira ibilbideak kalkulatzeko gailua abian jartzeko, eta asmoa da hori erabat osatzea eta Gipuzkoan nahiz Pirinio Atlantikoetan dauden garraio eskaintza guztietarako erabili ahal izatea (autobusa, trena, etab.).

Azkenik, hiri eta hiri arteko garraioak lehentasunezkoak izan dira, beti bezala. Ildo horretan, abian jarri da berriazko azterketa bat, autobidearen erabilerari buruzkoa eta autobus linea bizkorrak garatu ahal izateko intermodalitateak duen garrantziari buruzkoa. 2016. urtearen amaieran hasi zuten azterketa, eta 140.000 euroko kostua izan du; POCTEFA programak finantzatu du, partzialki (Transfermuga 2 proiektuaren baitan).

IV. 2 Pirinioetako Lan Elkartea

Pirinioetako Lan Elkartea (PLE) 1983an sortu zen, eta kide hauek osatzen dute: Akitania Berria, Okzitania, Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Euskadi eta Andorrako Mugaz Haraindiko Lankidetzaren Erakundea. 2016ra arte, hiru ziren Frantziako eskualdeak, baina orain aipatu berri ditugun bietan elkartu dira: Akitania Berria eta Okzitania.

Luzaroan, izaera juridikorik gabeko erakunde bat izan zen, baina 2005ean, Baionako Tratatuaren babespean, Partzuergo bilakatu zen.

Pirinioetako Lan Elkartearena da Espainia-Frantzia-Andorrako Lurralde Lankidetzarako 2014-2020 aldiko Programa Operatiboaren (POCTEFA) Kudeaketako Agintaritza. Gogora ekarri behar da POCTEFAk ia 190 milioi euroko zuzkidura jasotzen duela FEDER Funtsetik, hurrengo deialdietan onartuko diren mugaz haraindiko proiektuen gastuen %65 arte finantzatzeko.

Lehenengo deialdia 2015ean atera zen, eta POCTEFA 2014-2020ko Programazio Lantaldeak, maiatzaren 11ko bileran, Eskualde Garapenerako Europako Funtseko (EGEF) 71,2 milioi euro bideratu zituen Pirinioetako mugaz haraindiko lurraldera, 58 proiektu programatuta. Zenbateko hori Programaren zenbateko osoaren %40 da.

2016an, POCTEFA programaren bigarren deialdiaren lehenengo fasea atera zen, eta 167 hautagaitza onartu ziren.

Lehenengo deialdian gertatu moduan, Programako EGEFren %40 dagokio deialdiari, hau da, 71,2 milioi euro.

VII. ETORKIZUNEAN GAUZATU BEHARREKO JARDUNEN PROPOSAMENAK

A. Zeharkako esparruko proposamenak

2017ko martxoaren 25ean, Eusko Jaurlaritza, lehendakaria buru zela, Erromako Tratatuaren 60. urteurrenaren ospakizunetara batu zen. Tratatu horren bitartez, aro modernoan Europarako proiektu politiko, ekonomiko eta sozial garrantzitsuena martxan jarri zen, une hartan herritarrei itunetik eratorritako erakundeekin ilusioa egiten lagunduz. Harrezkero, egungo Europar Batasunak bake egoera batez gozatu du, bere historiako oparotasun sozial eta ekonomikoko aldi luzeenaz.

Eusko Jaurlaritzak gizakien duintasuna defendatzean oinarritutako Europa haren sortze balioak aldarrikatzen ditu, eta, beraz, EBko eragile politiko guztien konpromisoa, Europako erakundeetatik hasi eta tokiko erakundeetaraino. Eusko Jaurlaritzak berretsi du Euskadik konpromisoa duela Europako integrazio proiektuarekin.

Europa jasaten ari den krisi existentzialaren jakitun gara (krisi humanitarioa, Brexita, desberdintasun ekonomiko eta sozialak, langabezia, terrorismoa...), baina mezu positiboa helarazten da susperraldia eta integrazio handiagoa bultzatzeko, uniformetasuna inplikatu beharrean, parte hartze eta subiranotasun partekatua dakarrena.

Estatu sozialean oinarrituta dagoen, pertsonak ardatz dituen, lehiakorra eta berritzailea den, lurraldeei dagokienez kohesionatua dagoen, bere nortasunari eta balioari eusten dion eta Herrialde gisa Europako proiektu komunaren etorkizunaren alde gure esku dagoen guztia ematen jarraitzeko konpromisoa duen Europa baten alde egiten da.

Horixe jakinarazi zien lehendakariak Europako erakundeei 2017ko maiatzaren 5ean Bruselara egin zuen bidaiari. Bidaia hartan, maila gorenekoekin bilerak egiteko aukera izan zuen, besteak beste hauekin: Europako Batzordeko buru Jean Claude Juncker jaunarekin, Ekonomia eta Finantza, Zerga Sistema eta Aduana Gaietarako Batzordeko komisario Pierre Moscovici jaunarekin eta Brexiterako Europako Parlamentuko bozeramaile Guy Verhofstadt jaunarekin.

Euskadik parte hartu nahi du Eskualdeetako Lantaldeak eta Europako Batzordeak irekitako Europaren etorkizunari buruzko gogoeta prozesuan, gure ahotsa entzun dadin Europan, euskal ikuspegia jasoko duen proposamen propio baten bitartez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta gizarte zibilak (Orkestra, Globernance eta Merkataritza Ganberak) eta Eskualdeetako Lantaldeak eztabaidarako jardunaldiak antolatu dituzte hainbat arlotako iritziak jasotzeko, hala nola unibertsitatearen eta enpresen arlokoak, hainbat gairi dagokionez: berrikuntza, unibertsitatea eta enpresa, maila askotako gobernantza eta gazteen enplegua, besteak beste.

Jardunaldi horiek honako hauek izango dituzte mintzagai:

- *"Europa Berritzaila, enpresa-unibertsitatea-gizartea arteko erlazio eredu berri baterantz".*
- *"Maila askotako gobernantza, paradiploiazia eta estatus azpiko erakundeen egitekoa EBn: behetik gorako Europa baterako apustu berria".*
- *"Talentuaren Europako ekosistema: gazteentzako aukera handiak".*

Saio horietan ateratako ondorioei esker, Eusko Jaurlaritzak egingo duen proposamena aberastuko da, gai gehiago hartuko baititu. Azken xedea da Europaren etorkizunari buruz Euskadik duen ikuspegia islatzen duen dokumentu bat aurkeztea. Jaurlaritzak ekarpen hori Eskualdeetako Lantaldeari, Europako Batzordeari eta haren buru Jean-Claude Junckeri igorriko dio.

Bestalde, 2017ko apirilaren 25ean, Brexitaren Jarraipen Batzordea eratu zen. Batzorde publiko-pribatu bat da eta bertan daude ordezkaturak Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, EUDEL, euskal unibertsitateak, merkataritza ganberak eta Pasaia eta Bilboko portu agintaritzak. Batzorde hori Erresuma Batuak EB uztearen ondorioak eta horrek euskal interesetarako izango duen eragina aztertzeko sortu da. Batzordea arduratuko da Brexitaren negoziazioen jarraipena egiteaz, ondorioak aurreikuste, eragin negatiboak minimizatze eta euskal interesetarako aurkez daitezkeen aukerak optimizatze aldera.

Bestalde, etorkizunera begira, Euroeskualdearen erronka nagusia da Nafarroako Foru Komunitatea formalki atxikitzearekin 2017. urtearen hasieran ekindako ibilbide berria finkatzea. Beste bazkide batek parte hartzeak funtsean areagotu du jardun beharreko lurraldea, eta, gainera, Euroeskualde berria eratu ondoren, lurralde lankidetzarako espazio horrek ia 9 milioi biztanle izango ditu 100.000 km² baino gehiagoko eremu batean, hau da, Europar Batasunaren % 2an.

Bereziki, nafar bazkideak integratzea ekarriko du dagoeneko badauden urteroko proiektuen bi deialdietan nahiz Partenariotza Estrategikoetan; gainera, 2014ko abendutik indarrean dagoen Plan Estrategikoa eguneratu beharko da.

Pirinioetako Lan Komunitateari dagokionez, bertako kideek erabaki dute beharrezkoa dela lanerako esparru estrategiko bat egitea, POCTEFaren kudeaketa esparrutik kanpo Pirinioetako jardura dinamizatzailerako propioak garatzeko. Horregatik, 2017an, 2018-2022 aldirako Pirinioetako Plan Estrategiko bat idazten ari gara, datozen bost urteetarako garapenerako lehentasuneko orientazioak eta ekintzak ezartzeko.

Bestalde, 2016ko uztailaren 13ko Pirinio Atlantikoko Prefetaren Agindua ezartzen du 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarriko dela «Communauté d' Agglomération du Pays Basque», Iparraldeko lurraldean dauden udalerrien 10 mankomunitate bateratzearen bitartez. Komunitate horrek eskumen propioak izango ditu. 2017an, Iparraldeko mankomunitate bakar horrekin lankidetzak aukerak aztertu dira.

B. Arlo sektorialetako proposamenak

Zeintzuk dira Europar Batasunean 2017rako eta hurrengo urteetarako aurreikusitako politika publikoetako jarduera ildoak? Zeintzuk dira arlo horietan Euskadik landuko dituen proposamen sektorial zehatzak?

2017. urteak funtsezkoa izaten jarraituko du migrazio fluxuen kudeaketan, eta Batzordeak lanean jarraituko du Europako Parlamentuarekin, Kontseiluarekin eta estatu kideekin erantzun eraginkorra eta koordinatua emateko migrazio krisiari, solidarotasuna eta erantzukizuna oinarri hartuta. Berrezartzearen esparruan 2015ean hitzartutako zenbatekoak betetzen ari dira; ez da gauza bera gertatzen, ordea, Italiatik eta Greziatik Europako beste estatu kide batzuetara eginiko berrezartzeekin. EBk EBko aurrekontuko 15.000 milioi euro baino gehiago bideratu ditu migrazioaren kudeaketari aurre egiteko eta Batzordeak errefuxiatuak babesten jarraituko du eta Europako harrera komunitateetan integratzea laboratuko du.

Alabaina, ahalegin gehiago eta handiagoak behar dira eta ildo horretan, Euskadik korridore humanitarioak bultzatzen jarraituko du, bisa humanitarioak emanez nazioarteko babesa behar duten pertsona zaurgarriak legez eta modu seguruan ekarri ahal izateko Europara, eta pertsona horiek laguntza sozial globala jaso ahal izateko harrera komunitatean.

Ekonomia eta finantza gaietan, hilero egingo diren ECOFIN eta Eurotaldeen Kontseiluen jarraipena egiten jarraituko da, bai eta 2017ko Europar Seihiilekoaren prozesuko etapena ere (2016ko azaroan jarri zen martxan). Ziklo horren hasieran, Batzordeak azpimarratu zuen estatuek ahalegin handiagoa egin behar zutela inbertsioa pizteko "triangelu birtuosoa" abian jartzeko, egiturazko erreformekin jarraitzeko eta aurrekontu politika arduratsuak betetzeko. Halaber, hazkunde inklusiboagoa lortzen saiatzeko eskatu zitzaaien.

Aldi berean, Europaren etorkizunari buruzko Liburu Zuriak Ekonomia eta Diru Batasunaren (EDB) etorkizuna ere hartzen du barnean, EDBren bigarren sakontze etapa prestatzeko testuinguru politiko eta demokratiko berrian, besteak beste Egonkortasun eta Hazkunde Ituna berrikustea eta EDBren Egonkortasun, Koordinazio eta Gobernantzarako Tratatuen 16. artikuluen jarraipena. Berrikuspen hori eta Bankuen Batasuna egiteko hurrengo pausoak gertutik jarraituko dugu.

Zerga Sistemaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoak parte har dezakeen ECOFINeko lantaldeetan parte hartzen jarraituko dugu. 2017an, Euskadirako legegintza proposamen interesgarri guztien jarraipena egiten segituko dugu, hala nola BEZa modernizatzeko neurriak eta sozietateen gaineko zergaren zerga oinarri kontsolidatu komunaren sorrera.

2017. urtean, EBk kalitatezko lanpostu gehiago sor daitezen sustatzen jarraituko du eta gaur-gaurkoz EBn erregistratzen diren langabezia maila altuen aurka borrokatuko da, bereziki gazteen artean. Hala, EBk estatuei eta eskualdeei lagundu nahi die hainbat baldintzak sortzen, lan merkatutik kanpo daudenek, nola gazteek hala helduek, lan merkatuan bete-betean parte hartu ahal izateko beharrezkoak diren gaitasunak gara

ditzaten. Horretarako, Europarako Gaitasunen Agendaren gauzatzeari eta Gazte Bermeari jarraipena egingo zaie. Gazte Bermea erabat abian jartzen dela bermatze aldera, Batzordeak Gazte Enpleguari buruzko Ekimenarekin 2020 arte jarraitzea proposatu du eta haren baliabideak areagotzea.

Gizarte politikari dagokionez, 2017ko apirilaren 26an Batzordeak Eskubide Sozialen Europako Zutabea aurkeztu zuen (Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen baterako aldarrikapen proposamen bat eta gomendio bat). Horren bitartez, 2016an hasitako kontsulta prozesua amaitu zen. Zuzen funtzionatzen duten eta bidezkoak diren lan merkatuak eta ongizate sistemak lortzeari lehentasuna ematen jarraituko zaio eta erreferente gisa jarriko da diru sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistema, ia 30 urtez indarrean dagoena. Zutabearekin batera, Batzordeak Zuzentarau proposamen bat ere aurkeztu du lan eta familia bizitza uztartzeari buruz. Jarraipen sakona egingo zaio. 2016an Europako Gizarte Funtsaren 2014-2020 aldirako programa operatiboa gauzatzen jarraituko da Euskadin, eta 48.000 pertsonari baino gehiagori eragingo die.

Bestalde, 2017ko azaroan Gotemburgen Gizarte Gaietarako Goi Bileran garrantzitsua egin zen. Bilkura horretan, parte hartzaileek berretsi egin zuten baterako erantzukizuna dutela maila guztietan lan merkatuek aurre egin behar dieten erronkei aurre egiteko. Bileran, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Europako Batzordeak Eskubide Sozialen Europako Zutabea aldarrikatu zuten baterako konpromiso horren hezurramitze gisa, eta, zehazki, Goi Bilerak gogorarazi zuen pertsonen lehentasuna eman behar zaiela baterako ahaleginak eginez maila guztietan eta Batasuneko gizarte gaiak garatzen jarraitu behar dela, baterako konpromisoan eta ezarritako eskumenetan oinarrituta.

2017an, kulturaren eta kultur eta sormen industriaren indarra eta kanpoko kultur politikan duten egitekoa aitortu zen EBko Kultura Ministroen Kontseiluak Europako Estrategia bat hartuz *ad hoc*. Estrategia horretan aitortzen da eskualdeen egitekoa eta EBtik kanpoko 10 herrialde ardatz dituzten proiektu pilotuak abian jarriko dira. EUNIC (European Union National Institutes for Culture) erakundeak gauzatuko du estrategia, eta horren bitartez, Etxepare Institutuak ere parte hartuko du. Estrategian eskualdeen egitekoa sartu zen Euskadik 2016an Kontseiluan parte hartzearen koordinazio seihilekoan defendatu zuen proposamenaren ondoren.

Estrategian parte hartzeak aukera ematen du Euskadi kanpoan kokatzeko eta nazioarteko eta Europako beste eragile batzuekin elkarlanean jarduteko kanpoan. Gainera, Europako beste kultur mapa batzuetan eta kultur eta hizkuntza aniztasunean eragina izango du.

Kanpoko kultur lankidetzarako Europako Estrategia pasarela bat da Etxeparek EUNIC erakundearen duen pisua finkatzeko, bai eta Kultur Diplomaziarako Euskal Estrategiaren oinarriak indartzeko ere. Era berean, Euskadik RICC sarean duen burukidetzak lagundu egingo digu prozesuaren buru izaten, UNESCOren inplikazioarekin.

Europako Interreg Programaren bitartez Creadis3/Europako Sormen Barrutiak proiektuaren finantzaketa eskuratu izanak aukera ematen du Euskadin kultur eta sormen industriaren egitekoa indartzeko eta mailaz igotzeko. Proiektu horren burua Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila da, eta finantzaketa 5 urterako lortu zen. 2017an hasiko da gauzatzen. Espezializazio Adimentsuko Estrategiarekin lerrotzeko esker, lurraldeko

eragile desberdinak egituratuko dira, kulturen elkarrekin lan egingo da, garapen ekonomiko eta berrikuntza eraginkorragoa izango da eta epe laburrean emaitzak eskuratuko dira. Europako beste bost bazkiderekin sarean lan egiteak ekimena aberasten du, eskualdeko eta lurraldeko lankidetzari esker eta lurralde bakoitzaren espezializazioari esker.

Donostia Europako Kultur Hiruburu izendatu izanaren ondarearen harira, Donostia Zinemaldia, European euskal sorkuntza eta kulturaren kokapena eta Etxepare babesten jarraituko da eta horiekin lankidetzan jardungo gara, besteak beste, Euskadiko kultura eta sormena kanpoan sustatzeko eta kokatzeko ekintzetan. 2017. urtea, halaber, Europako Kultur Ondarearen 2018ko Europako Urtearen parte izango diren funtsezko ekintzen abiapuntua izango da.

Hezkuntza politikaren arloan, azpimarratu behar da Europako Batzordeak goi mailako hezkuntza modernizatzeko eta unibertsitate-enpresa arteko aliantzarako Europako estrategia berria onartuko duela. Estrategia berriak eskualdeen egitekoa hartzen du barnean. Europar Batasunean Eusko Jaurlaritzak duen zeregina garrantzitsua da aurrera egiteko eta Euskadin unibertsitate-enpresa arteko aliantzaren pisua areagotzeko, bai eta horiek ekimen ekintzaileekin duten lotura ere, lan merkatuko premietara eta gizartearen erronketara egokitze eta berrikuntza eta jasangarritasuna bultzatzeko.

Era berean, espero da finantzaketa ildoak abian jarriko direla espezializazio arlo zehatzetan, New Skills Agenda ekimenarekin bat etorrira, eta Euskadiko lehentasunezko espezializazio arloetan. Ikaskuntzarako Europako Aliantzak, Solidariotasunaren aldeko Europako Taldeak eta lanbide heziketak lehentasuna izaten jarraituko dute eta aukera berriak ekarriko dizkie euskal gazteei. Gainera, nazioartekotzeko aukera ere emango die.

Nazioarteko lankidetzari eta agendari dagokionez, 2017an Europako txosten bat aurkeztuko da, Euskadik koordinatuta, lankidetzaren deszentralizatuko eredu berritzaileei buruz, Garapen Jasangarriko Helburuekin lotuta kontuak ematearen eta politiken koherentziaren arloan. Lankidetzaren Deszentralizaturako *Assises* edo kongresuak ere egingo dira, eta Euskadik bi urtean behin parte hartuko du CPMRko Lankidetzaren Taldearen eskualde koordinatzaile gisa.

Turismoaren arloan, turismoaren jasangarritasuna azpimarratzen jarraituko dugu, bai eta itsas turismoa ere.

EBko merkataritza politikaren eta merkataritza askeko akordioaren arloan, TTIPen Ameriketako Estatu Batuekin eginiko negoziazioak arretaz jarraituko dira (berrekin gero), bai eta Japonia, Mercosur, Mexiko eta beste batzuekin eginikoak ere.

Arreta jarriko da, baita ere, Nekazaritza Politika Bateratuaren erreforman 2020 ondorengo aldirako. Nekazaritza Politika bateratua 1962an jarri zen abian, eta Europako politika zaharrenetako bat da. Landa eremuek eta tarteko eremuek osatzen dituzte Europar Batasunaren lurraldearen % 91, biztanleen % 60, balio erantsi gordinaren % 43 eta lanpostuen % 56. Ezin da zalantzan jarri sektore horrek duen garrantzia Europar Batasunak garapen ekonomikorako dituen helburuak lortzeko kohesio eta solidariotasuneko, lanpostuak sortzeko, elikagaien segurtasuneko, klima aldaketaren aurka egiteko, baliabide

naturalak modu jasangarrian erabiltzeko eta energia berriztagarrietara igarotzeko oinarriei jarraituz.

Gaur-gaurkoz nekazaritza da oraindik landa ekonomiaren bultzatzaileetako bat: nekazaritza ustiapenek 28 milioi pertsonari ematen diete lana landa eremuetan. Nekazaritza ustiapenen kopurua % 20 murriztu da azken urteetan: 2007an 13,6 milioi izatetik 2013an 10,8 izatera igaro dira.

Euskadik egungo bi oinarri eustea proposatzen du: lehenengo zutabea (errenitei zuzeneko laguntzak ematea), Bruselak % 100 finantzatuta, eta bigarren zutabea, kofinantzatuta. Era berean, hirugarren zutabe espezifikoa bat sortzearen alde egingo da (lehenengo zutabetik bereizita), merkatu krisien aurrean babes mekanismoak ezartzeko: ordainketa kontraziklikoak, errenta aseguruak eta zehazteko dauden beste batzuk; baita honako hauen alde ere: estatu kideen arteko funtsen banaketa aurrez ezarri gabea eta *status quo*-en mende ez dagoena, eredu eraginkorrenzat jotzen denaren menpe baizik, eta eskualdeek Nekazaritza Politika Bateratua kudeatzeko arau komunetan diru laguntza eta malgutasun gehiago izatea, eskualdeen berariazkotasunak aintzat hartzeko.

Hori guztia etengabeko erreformen menpe ez dagoen Nekazaritza Politika Bateratuko eskema iraunkor bat lortzeko asmoz egingo da, ustiapenetan belaunaldi aldaketa egiten eta nekazari gazteak oinarri egonkor batean sartzeko laguntzeko.

EBko Azpiegituretako politika berria garraioaren Europaz harandikoko sare bat (TEN-T) osatzean datza 28 estatu kideetan zehar, hazkundera eta eraginkortasuna sustatzeko. Garraio azpiegituren finantzaketa hirukoiztu egin zen 2014-2020 aldirako eta 26.000 milioi eurokoa izatera igaro zen. Bide handi horietako bat Atlantikoko korridorea da, Lisboa eta Mannheim/Estrasburgo lotzen dituen, Iberiar Penintsula eta Frantzia zeharkatuz, Euskadin barrena.

Etorkizuneko urte askotako finantza esparruari eta etorkizuneko kohesio politikari buruzko negoziazioetan jarraipen sakona egingo da. Batzordeak datorren urtean argitaratuko ditu negoziazio horietako proposamenak. Horretarako, Europaren etorkizunaren esparruan laster argitaratuko diren Batzordearen gogoeta dokumentuak adi-adi jarraitu beharko dira, bai eta Brexitarekin lotuta Erresuma Batuekin egingo diren negoziazioak ere. Eusko Jaurlaritzak horri buruzko jarrera bat hartuko du.

Eusko Jaurlaritzak, bestalde, kohesio politikari eta EIE funtsei buruzko jarrera dokumentu bat landu du datorren programazio aldiari begira, EAERI esleitutako EIE funtsen kudeaketaz arduratuko diren sailekin koordinatuta. Orain, jarrera horri balioa emateko unea da Europako stakeholder eta erakundeen aurrean.

Industria politikari dagokionez, 2017an Batzordeak industria politikako etorkizuneko Europako estrategia zehazteko lan egin beharko du; estrategia hori 2018ko udaberrian aurkeztu beharko dio Europako Kontseiluari. Agiri horrek epe ertain eta luzerako helburuak jasoko ditu industriarako. Horrekin batera, ekintza plan bat aurkeztuko da eta bertan jasoko dira 2018rako Europako Batzordearen lan programan jasoko diren neurri zehatzak. Espero da Europako industria estrategia berriak industriak azpimarratzea Europako hazkunderaren, enpleguaren eta berrikuntzaren bultzatzaile gisa duen funtsezko

egitekoa eta EBren oparotasunari egiten dion ekarpena. Ikuspegiari dagokionez, industria politika holistikoa izango da, eta oinarri izango ditu balio kate integratuak eta klusterren arteko lotura estuak, eta arreta berezia jarriko zaie ETE, start-ups, scale-ups eta kapitalizazio ertaineko enpresei.

Laburbilduz, Euskadik Abangoardiako Ekimenaren eskualde fundatzaileen nukleoan parte hartzen jarraituko du, irabazi asmorik gabeko erakunde gisa ofizialki eratzeari begira, bai eta manufaktura aurreratuen, nanoteknologiaren eta bioekonomiaren arloko proiektu pilotuetan ere.

Ingurumenaren arloan, 2017ko martxoan, Europako Batzordeak iragarri zuen stakeholders plataforma bat jarriko zuela abian ekonomia zirkularrerako; horren helburua da topagunea izatea arlo horretako ezagutza trukatzeko eta sortzeko. Gai horrekin lotuta Euskadin dagoen interesa eta jarduna ikusirik, plataforma horretan emango diren urratsak arretaz jarraituko dira, euskal eragileek parte hartuko dutela bermatzeko. (Irailan Basque Ecodesign Meeting - BEM2017 egingo da Bilbon, eta Europako ordezkariak parte hartuko dute).

2017. urtean, klima aldaketaren arloko Europako Agendaren ardatza klimaren eta energiaren Europako paketea abian jartzea izango da 2030 arte. Aldi berean, Euskadi klima aldaketaren aurkako borrokan erreferentziatzko eskualde gisa kokatzera bideratutako jarduera guztiak bultzatuko ditugu.

2018ko lehenengo seihilekoan Euskadiri egokituko zaio autonomia erkidegoak ordezkatzeko Europar Batasuneko Ingurumen Kontseiluan. Euskadik 2007 eta 2009 artean izan zuen ordezkari-tza autonomikoa erakunde horretan. Erakunde horretako lantaldeen bileretan parte hartzeko aukera izango dugu, bai eta, baterako jarrera bat egonez gero, hurrengo urteko lehenengo seihilekoan erakunde horrek egingo dituen osoko bilkuretako saioetan parte hartzeko ere.

Ikerketaren eta berrikuntzaren arloan, HORIZON 2020 (2014 - 2020) oinarrizko programa lantzen jarraitzen da. Urrian, programa horretako azken zatirako (2018 – 2020) lan programak prest egongo direla aurreikusten da. H2020 aukera handia da Euskadirako; izan ere, nazioarteko lankidetzaren sustatzeko aukera ematen du ikerketaren eta garapen teknologikoaren arloan, aurre egin behar diegun gizarte erronka handiak ebazteko kokapen lehiakor bat lortzeari begira.

Gainera, etorkizuneko 9. Oinarrizko Programaren (2021-2027) eta Berrikuntzaren Europako Kontseiluaren diseinua hurbiletik jarraituko da.

Euskadik etorkizuneko Balio Erantsiaren Fabrikazioaren arloko Ezagutzaren eta Berrikuntzaren Komunitatearen buru izateko hautagaitza bultzatzen eta koordinatzen du. Horretarako deialdia 2018an egingo dela aurreikusten da. Funtsezko proiektu estrategikoa da Euskadi arlo horretako Europako ezagutza eta ekintzailetzaren aliantza baten buruan kokatzeko.

2017rako Europako Energia Politikari dagokionez, Energiaren Europar Batasun bat lortzeak izango du lehentasuna. Gainera, arreta berezia jarriko da Batzordeak aurkeztutako Energia Pakete garbian. Pakete hori 2017an eztabaidatuko da Europako Parlamentuan eta Europar Batasuneko Kontseiluan.

1. ERANSKINA

EUSKADIK ESQUALDEETAKO LANTALDEAN DUEN PARTE HARTZE GARRANTZITSUENARI BURUZKO LABURPEN TAULAK

Ekitaldia	Ordezkaria	Jarduna	Data
116. osoko bilkura	Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	-ALDE alderdi politikoaren bilera -	2016.02.10
		Espainiako ordezkariaren bilera -Osoko bilkura	2016.02.11
117. osoko bilkura	Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	-ALDE alderdi politikoaren bilera -	2016.04.07
		Espainiako ordezkariaren bilera -Osoko bilkura	2016.04.08
118. osoko bilkura	Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	-ALDE alderdi politikoaren bilera -	2016.06.15
		Espainiako ordezkariaren bilera -Osoko bilkura	2016.06.16
119. osoko bilkura	Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	-ALDE alderdi politikoaren bilera -	2016.10.10
		Espainiako ordezkariaren bilera	2016.10.11
		-Osoko bilkura	2016.10.12
120. osoko bilkura	Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	-ALDE alderdi politikoaren bilera -	2016.12.07
		Espainiako ordezkariaren bilera -Osoko bilkura	2016.12.08

Topaketa instituzionalak	Ordezkaria	Jarduna	Data
Eskualdeetako Europako Batzordeko buru Markku Markkulak Euskadira eginiko bisita instituzionala	-Lehendakaria - Tapia sailburua - Oregi sailburua - Kanpo	- Agenda instituzionala Euskadin - Hizlaria "Hiri eta Herri Jasangarrien Europako VIII. Konferentzian" (Bilbo)	2016.04.27
	Harremanetarako idazkari nagusia -Bizkaiko Foru Aldundia	-Berrikuntza, jasangarritasuna eta hiri eraldaketaren arloko proiektuen bisita	2016.04.28

Eusko Legebiltzarraren Jarduera Txostena

	-Bilboko Udala		
Eskualdeetako Europako Batzordeko kideen ordezkaritza batek Euskadira eginiko azterketa bisita	-Lehendakaria - Oregi sailburua -Josu Madariaga sailburuordea - Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia - Europako Gaietarako zuzendaria	- Topaketa lehendakariarekin eta Oregi sailburuarekin - Euskal politikak ingurumen jasangarritasunaren arloan. Natura 2000 sarera bisita Urdaibain -"Hiri eta Herri Jasangarrien Europako VIII. Konferentzian" parte hartzea (Bilbon)	2016.04.26 2016.04.27
Eskualdeetako Europako Batzordeko buru Markku Markkularekin bilera	- Oregi sailburua -Josu Madariaga sailburuordea - EBrako Euskadiren ordezkaria	-Nazioarteko ingurumen ekintzan Euskadik duen presentziaren erakusketa -Europako eskualde eta hiriek 2016ko apirilaren 27an izenpetutako "Euskal Adierazpenaren" garapena -Habitat 3 programa	2016.06.29
Europako Eskualde eta Hirien VII. Goi Bileran parte hartzea (Bratislavan)	Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	-"Inbertitzea eta Konektatzea" izenburupean, eskualde eta tokiko agintarien 1.000 ordezkarik inguruk inbertsioa berreskuratzeko moduari buruz eztabaidatu zuten beste eskualde eta eragile batzuekin lankidetzan.	2016.07.08 2016.07.09

Eusko Legebiltzarraren Jarduera Txostena

Jardunbide egokiak	Ordezkaria	Jarduna	Data
Hiri ingurunean Eskualdeko eta Tokiko Berrikuntza Ekosistemei buruzko jardunbide egokien gida	-Marcos Muro VISESAko zuzendari nagusia	-Euskadin jardunbide egokiaren kasu baten aurkezpena RIS 3 estrategia ezartzeari buruz, Hiri Habitat gisa identifikatutako aukera nitxo baten bitartez.	2016.03.31
"COP22: Klimarekin konprometitutako eskualdeak eta hiriak" konferentzia	- Oregi sailburua	Parisen eginiko klima aldaketari buruzko munduko goi bileran (2015eko abendua) hartutako erabakia Euskadin garatzeari buruzko hitzaldia	2016.06.29
Open Days: Konferentzia: "Hirien arteko ikuspegiak hiri adimentsuen anbizioen finantzaketa eta banaketari buruz"	EBrako Euskadiren ordezkaria	Hiri adimentsuen garapena bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren estrategien aurkezpena. Bi proiekturen erakusketa: SmartEnCity eta REPLICATE.	2016.10.11
Open Days: Konferentzia: "Kultura eta sormen industriak eskualdeetako espezializazio adimentsuko estrategietan (RIS3); Nola ari dira maneiatzen eskualdeak?"	EBrako Euskadiren ordezkaria	Euskadi espezializazio adimentsuko (RIS3) eta abangoardiako lurralde gisa aurkeztea, Euskadiko 3D ikuspegia nabarmenduz industria, kultura, eta ikerketa, berrikuntza eta teknologia batzerakoan.	2016.10.13
<u>"Science meets Regions"</u> <u>konferentzia pilotua</u>	- Oregi sailburua	Euskadi espezializazio adimentsuko lurralde gisa aurkeztea garraio eta mugikortasun jasangarriaren arloan, euskal hiriburuen arteko	2016.11.07

Eusko Legebiltzarraren Jarduera Txostena

		konektibitatea azpimarratuz euskal trenbide sare berriaren bitartez Europako korridore atlantikoaren barruan, eta hiri garraioaren elektrifikazioa nabarmenduz.	
--	--	---	--

2. ERANSKINA

**EUSKO JAURLARITZAK ESKUALDEETAKO LANTALDEAN
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Irizpenaren izena	Eginiko zuzenketak	Aurkeztutako zuzenketak	Onartutako zuzenketak
4287/15 Lurralde garapenaren adierazleak: BPGaz harago.	1	0	0
2799/15 Landa ekonomiaren berrikuntza eta modernizazioa	6	6	4
6328/15 Errefuxiatuak jatorrizko eskualdeetan babestea	15	15	8
5368/15 Emisioen murrizketa errentagarriak eta inbertsioak teknologia hipokarbonikoetan	1	1	1
5660/15 EBko ingurumen legedia	3	3	2
6329/15 Erradikalizazioaren eta indarkeriazko estremismoaren aurkako borroka: tokiko eta eskualdeko prebentzio mekanismoak	16	13	13
0585/16 Hondakinei buruzko zuzentarauak aldatzen dituzten legegintza proposamenak	5	5	2
0040/16 EBren erantzuna demografiaren erronkari	2	2	2
2321/16 2017rako urteko Aurrekontuaren Zirriborroa	1	1	1
0007/16 Europarako abiazio estrategia	3	0	0
0008/16 EIE funtsen sinplifikazioa	6	6	3

Eusko Legebiltzarraren Jarduera Txostena

1813/16 Bizikletetarako EBren bide orria	21	9	8
1460/16 Estatuaren laguntzak eta guztien interes ekonomikoko zerbitzuak	2	2	2
2419/16 BEZaren gaineko Ekintza Plana	5	5	5
1415/16 Ekonomia zirkularrerako EBren Ekintza Plana	8	8	7
2868/16 Eskubide Sozialen Europako Zutabea	3	3	3
2884/16 Europako industriaren digitalizazioa	2	2	2
3699/16 Legezko migrazioa	3	3	3
4438/16 Hirugarren herrialdeetako nazionalak integratzeko Ekintza Plana	3	3	2
0983/16 Refit programa: eskualdeko eta etokiko ikuspegia	1	1	1
4094/16 Europarako gaitasunen agenda berria	7	7	7
GUZTIRA	114	95	76

3. ERANSKINA

BESTE KIDE BATZUEK EGINDAKO ETA EUSKADIREKIN BATERA ESKUALDEETAKO LANTALDEAN AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Zuzenketaren sustatzailea	Aztertutako zuzenketen kop.	Babestutako zuzenketen kop.
<p>Andaluzia <u>Gaiak:</u> Estatuaren laguntzak (3); auzotasun politika (3); arrantza baliabideak (4); hirugarren herrialdetako nazionalen integrazioa (5); turismoaren bultzatzailea (6); ekonomia kolaboratiboa (1); nekazaritza prezioak (8).</p>	30	26
<p>Aragoi <u>Gaiak:</u> Elikagaiak alferrik galtzea (2); EBren demografiaren erronka (6); ekonomia zirkularra (1).</p>	9	7
<p>Asturias <u>Gaiak:</u> Gazteen Europako lankidetzak (8); arrantza sektoreko datuak (1); lurralde garapenaren adierazleak (3); eskubide sozialen Europako zutabea (4); industriaren digitalizazioa (1); arrantza baliabideak (1); FEIE (1); hirugarren herrialdetako nazionalen integrazioa (1); turismoaren bultzatzailea (1); Refit programa (1).</p>	22	18
<p>Balearrak <u>Gaiak:</u> Landa ekonomiaren berrikuntza eta modernizazioa (2); gazteen Europako lankidetzak (4); Europako Ekonomia eta Diru Batasuna gauzatzea (1); merkatu bakarra hobetzea (3); energia kontsumitzaileentzako akordio berria (7); 2017rako urteko aurrekontua (1); industriaren digitalizazioa (1); BEZaren ekintza plana (1); hodeiko konputazioa (1); EIE funtsak (2); abiazio estrategia (5); 2016ko Europar seihilekoa eta hazkundea (2); Refit programa (1); turismoaren bultzatzailea (2).</p>	33	18
<p>Kanariak <u>Gaiak:</u> Gazteen Europako lankidetzak (2); auzotasun politika (1); eskubide sozialen Europako zutabea (1); ekonomia zirkularra (2); abiazio estrategia (6); hirugarren herrialdetako nazionalen integrazioa (1); turismoaren bultzatzailea (3); gaitasunen agenda (3).</p>	19	15

Eusko Legebiltzarraren Jarduera Txostena

<p>Gaztela-Mantxa <u>Gaiak:</u> Lurralde garapenaren adierazleak (1); landa ekonomiaren berrikuntza eta modernizazioa (1); 2016rako Hazkunde Batzordearen azterketa (4); gazteen Europako lankidetzatza (2); errefuxiatuak jatorrizko eskualdeetan babestea (11); EBren Hiri Agenda (2); merkataritza eta inbertsio politika (1); egiturazko erreformen programa (2017-2020) (1); elikagaiak alferrik galtzea (2); hondakinei buruzko zuzentarauak (2); EBren demografiaren erronka (5); berokuntza eta hoztea (1); ekonomia zirkularra (3); urte askotako finantza esparruaren berrikusketa (1); turismoaren bultzatzailea (4); FEIE (2).</p>	43	28
<p>Gaztela eta Leon <u>Gaiak:</u> Errefuxiatuak jatorrizko eskualdeetan babestea (4); Europako Ekonomia eta Diru Batasuna gauzatzea (1); energia kontsumitzaileentzako akordio berria (2); erradikalizazio eta indarkeriazko estremismoaren aurkako borroka (1); Batzordearen 2017ko lan programa (1); 2017rako urteko aurrekontua (1); elikagaiak alferrik galtzea (3); EIE funtsak (1); estatuaren laguntzak (1); industriaren digitalizazioa (1); eskubide sozialak (2); ekonomia zirkularra (1); berokuntza eta hoztea (8); turismoaren bultzatzailea (1); Refit programa (1).</p>	29	10
<p>Katalunia <u>Gaiak:</u> Hirugarren herrialdeetako nazionalen integrazioa (7); langileen lekualdaketak (4); ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuen zuzentaraua (8).</p>	19	11
<p>Extremadura <u>Gaiak:</u> Europako Ekonomia eta Diru Batasuna gauzatzea (4); hondakinei buruzko zuzentarauak (4); administrazio elektronikoa (1); ekonomia zirkularra (14); EIE funtsak (1); hodeiko konputazioa (1); langileen lekualdaketak (1); turismoaren bultzatzailea (4).</p>	30	11
<p>Galizia <u>Gaiak:</u> EBren demografiaren erronka (1); EIE funtsak (4); nekazaritza prezioak (3).</p>	8	7
<p>Errioxa <u>Gaiak:</u> Landa ekonomiaren berrikuntza eta modernizazioa (2); gazteen Europako lankidetzatza (1); errefuxiatuak jatorrizko</p>	36	13

Eusko Legebiltzarraren Jarduera Txostena

eskualdeetan babestea (3); merkatu bakarra (1); EBren zabaltze estrategia (7); EBren demografiaren erronka (12); Batzordearen 2017rako lan programa (1); auzotasun politika (3); EIE funtsak (1); Refit programa (5).		
Madril <u>Gaiak:</u> Luzaroko langabeen integrazioa (2); errefuxiatuak jatorrizko eskualdeetan babestea (2); FEIE (4); turismoaren bultzatzailea (2).	10	5
Murtzia <u>Gaiak:</u> Egile eskubideak EBn (2); eskubide sozialen Europako zutabea (3); arrantza baliabideak (1); ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuen zuzentaraua (1).	7	3
Nafarroa <u>Gaiak:</u> Errefuxiatuak jatorrizko eskualdeetan babestea (2); elikagaiak alferrik galtzea (3); hirugarren herrialdeetako nazionalak (1); ekonomia kolaboratiboa (3).	9	3
Valentzia <u>Gaiak:</u> Lurralde garapenaren adierazleak (1); errefuxiatuak jatorrizko eskualdeetan babestea (3); erradikalizazioa eta indarkeriazko estremismoa (18).	22	1
ALDE talde politikoa <u>Gaiak:</u> Luzaroko langabeen integrazioa (3); gazteen Europako lankidetzaren (2); errefuxiatuak jatorrizko eskualdeetan babestea (4); komertzio eta inbertsio politika (3); merkatu bakarra (3); egiturazko erreformak babestea (2017-2020) (4); egile eskubideak EBn (7); EBren zabaltze estrategia (2); hondakinei buruzko zuzentarauak (4); 2017rako urteko aurrekontua (1); Batzordearen 2017ko lan programa (7); siderurgia (1); EIE funtsak (4); 2016ko Europar seihilekoa eta hazkundea (1); ekonomia zirkularra (2); ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuen zuzentaraua (1); ekonomia kolaboratiboa (13).	62	28
Lubelskie eskualdea <u>Gaiak:</u> Refit programa (3).	3	1
GUZTIRA	391	205

4. ERANSKINA

HEZKUNTZA, KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL GAIETARAKO KONTSEILUAREN HEZKUNTZA ETA KULTURA ARLOKO LANTALDEEN ETA OSOKO BILKURAREN BILERAK

2016ko bigarren seihilekoan, EBren Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Kirol Gaietarako Kontseiluaren prestakuntzara atxikitako hiru lantaldeen bilera hauek egin dira. uztailak 4 (Kultur Gaietarako Batzordea + Ikus-entzunezkoen Taldea)

Kultur Gaietarako Batzordea (KGB) eta Ikus-entzunezkoen Taldea	Hezkuntza Lantaldea
uztailak 4 (KGB + Ikus-entzunezkoen Taldea)	uztailak 5
uztailak 15 (Ikus-entzunezkoen Taldea)	uztailak 14-15 (Bratislavan)
irailak 2 (KGB + Ikus-entzunezkoen Taldea)	irailak 6
irailak 12	irailak 16
irailak 26	irailak 23
urriak 7	irailak 30
urriak 13	urriak 10
urriak 28	urriak 19
abenduak 2	urriak 31
abenduak 14	azaroak 3
	abenduak 2

EUSKADIK PARTE HARTU DUEN EUOPAR BATASUNENKO EKONOMIA ETA FINANTZA GAIETARAKO BATZORDERA (ECOFIN) ATXIKITAKO LANTALDEEN BILERAK

1. Zerga Gaietako D4 Taldearen bilerak; zuzeneko zerga sisteman eta zeharkako zerga sisteman banatzen da:

- Zuzeneko zerga sistema: zerga oinarriaren erosioa eta irabazien lekualdatzea; estatu kide desberdinetako sozietate elkartuen artean eginiko kanon eta interesen ordainketak; sozietateen gaineko zergaren zerga oinarri kontsolidatu komuna; zerga sistemaren arloan informazioa automatikoki eta derrigorrean trukitzea; eta aurrezkiaren errendimenduen zergak interesak ordainduz.

Bilerak urtarrilaren 26an, otsailaren 9an, otsailaren 16an, otsailaren 17an, martxoaren 4an, martxoaren 18an, apirilaren 6an, apirilaren 15ean, apirilaren 25ean, maiatzaren 4an, uztailaren 19an, irailaren 6an, irailaren 22an, azaroaren 3an, azaroaren 10ean, azaroaren 15ean eta azaroaren 23an. Guztira, 17 bilera.

- Zeharkako zerga sistema: BEZaren aitortpen normalizatua; BEZa bonuen tratamenduari dagokionez; finantza transakzioen zerga.

Bilerak apirilaren 11n, apirilaren 19an, apirilaren 29an, ekainaren 1ean, irailaren 13an, irailaren 27an eta urriaren 12an. Guztira, 7 bilera.

2. Jokabide Kodearen D5 Taldea, enpresen zerga sistemari eta dagokion azpitaldeari buruzkoa:

- Enpresen zerga sistemari buruzko Jokabide Kodea:

Bilerak otsailaren 2an, apirilaren 12an, ekainaren 2an, uztailaren 20an, irailaren 21ean, urriaren 19an eta azaroaren 24an. Guztira, 7 bilera.

- Jokabide Kodearen azpitaldea.

Bilerak uztailaren 15ean, irailaren 14an, irailaren 30ean, urriaren 6an, urriaren 13an, urriaren 14an, azaroaren 17an eta abenduaren 16an. Guztira, 8 bilera.

5. ERANSKINA

POLITIKA PUBLIKOETAKO HAINBAT ARLOTAKO EKIMEN ETA BILEREI BURUZKO JARDUERA BATZUK

- Urtarrilaren 29an ERIAFF sareak baso berrikuntzari buruz antolatutako konferentziara joan ginen.
- Otsailaren 25ean Abangoardiako Ekimenak proiektu pilotuetan parte hartu nahi duten enpresa, unibertsitate eta plataforma teknologikoetarako Matchmaking ekitaldian parte hartu genuen.
- Martxoaren 1ean *Vasco da Gama* proiektuaren (itsas garraio ekologiko eta seguruagorako prestakuntza) amaierako konferentziara joan ginen, CPMR buru zela.
- Martxoaren 2an Europako Parlamentuaren landareen ugalketarako teknika berriei buruzko ekitaldi batera joan ginen, GEOekin lotuta.
- Martxoaren 21ean Europako Batzordearen Enplegu, Gizarte Gai eta Inklusiorako Zuzendaritza Nagusiak antolatutako hazkunde inklusiboari buruzko 2016ko urteko konbentzioan izan ginen.
- Apirilaren 6an RISE fundazioaren Europako nekazaritzan nutrienteak berreskuratzeari eta berrerabiltzeari buruzko txostenaren aurkezpenean izan ginen.
- Apirilaren 12an Europako Batzordeak antolatutako “Industrial Technologies for Regional Growth” mintegian izan ginen.
- Apirilaren 20an Ipar Renania-Westfaliak landareen patenteei buruz antolatutako konferentzia batean izan ginen.
- Apirilaren 28an Batzordearen Migrazio eta Barne Gaietarako Zuzendaritza Nagusiarekin bilera bat egin genuen errefuxiatuak birkokatzeari eta berrezartzeari buruz.
- Apirilaren 28an, Europako Batzordeko Joint Research Center zentroak gonbidatuta, Abangoardiako Ekimena aurkeztu genion Poloniako eskualdeetako ordezkarietara Varsovia.
- Maiatzaren 26an eta 27an, EUROFOUND (European Foundation for the Improvement of Living and Working Conditions) fundazioak gonbidatuta, Gotemburgon antolatutako mintegian parte hartu genuen, Euskadik industria berregituratzean izandako esperientzia ezagutarazteko.
- Ekainaren 8an eta 9an, WIRE (Week of Innovative Regions of Europe) konferentzian parte hartu genuen Eindhovenen.

- Uztailaren 11n, CEPS (*Centre for European Policy Studies*) *think tank* buru den azterketaren aurkezpenean izan ginen. Azterketa Ekonomia eta Diru Batasuna langabezia prestazioen Europako sistema komun baten bitartez egonkortzeari buruzkoa zen (*European unemployment benefits scheme* – EUBS). Ekitaldia CEPSEk, EBren Kontseiluko presidentetza eslovakiarrak eta Europako Batzordeak antolatu zuten.
- Irailaren 1ean, Europako Parlamentuan, Europako enplegu prekarioari buruzko azterketa baten aurkezpenean izan ginen. Azterlan horren helburua izan zen laneko erlazio moten eta prekaritatearekin lotutako arriskuaren azken joeren ikuspegi orokor eta sistematikoa eskaintzea.
- Irailaren 19an, Gdanskeko Itsas Institutuak gonbidatuta, Abangoardiako Ekimeneko pilotuan orain arte egindako lana aurkeztu zen, "Aurkako inguruneetako energia aplikazioetarako fabrikazio aurreratua".
- Urriaren 11n, "Policymaking in the 21st century" mintegian parte hartu genuen, Open Days jardunaldien esparruan.
- Azaroaren 16an, *Public Policy Exchange think tank* britainiarrak antolatutako mintegi batean izan ginen, Europako Batzordeak Asilorako Europako Sistema Komunari buruz proposatzen duen erreformaren inguruan.
- Urriaren 27an eta 28an, Europako Batzordeak antolatutako mintegi batean izan ginen, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioarekin lankidetzan, espainiar estatuan enplegu zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen arteko koordinazioari buruzko esperientziak trukatzeko eta bi zerbitzuen arteko lotura hobetzeko asmoz.
- Azaroaren 29an eta 30ean, Europako Batzordeak antolatutako Haurren Eskubideen Europako Foroaren hamargarren edizioan izan ginen.
- Abenduaren 6an, Eskualdeetako Lantaldeak antolatutako konferentzia batean izan ginen, EBn hirugarren herrialdeetako immigranteen integrazioan tokiko eta eskualdeetako agintariek duten egitekoari buruz.
- Abenduaren 6an eta 7an, Europako Batzordeak nekazaritzako aukerei buruz antolatutako urteko konferentzian izan ginen.

6. ERANSKINA

2016AN EUSKADIK LAN EGIN DUEN ETA LANKIDETZAN JARDUN DUEN SARE NAGUSIAK

- ERLAI: Asilo eta Immigrazioari buruzko Europako Tokiko eta Eskualdeko Agintariak.
- Covenant on Demographic Change (Aldaketa Demografikoari buruzko Ituna).
- ERIAFF sarea (European Regions for Innovation in Agriculture, Food and Forestry), nekazaritzan, elikaduran eta baso gaitan Europako eskualde berritzaileak biltzen dituen.
- EUROMONTANA sarea, mendi eremuetarako Europako elkarte (Euskadi da burua).
- CPMR (Itsas Eskualde Periferikoen Konferentzia) - Kanpo Lankidetzako lantaldea (Euskadi da burua).
- CPMRren (Itsas Eskualde Periferikoen Konferentzia) Arku Atlantikoko Batzordearen Atlantikoaz Haraindiko Lankidetzari buruzko Garraio, Berrikuntza, Estrategia Atlantiko, Arrantza, Turismo eta Itsas Energia Berriztagarri eta Task Force arloko Lantaldeak.
- Jatorrizko Produktuen Europako Eskualdeen Elkarte (AREPO)
- GEORik Gabeko Eskualdeen Sarea
- REGAL (Elikagaien Gastronomiarako Eskualdeak)
- "Vanguard Initiative"
- RICC/ Regional Initiative for Culture and Creativity
- Network to Promote Linguistic Diversity (NPLD)
- EBko Kultur Institutu Nazionalen Sarea (EUNIC)
- NECSTOUR/Turismo jasangarrirako eskualdeen Europako sarea.
- EARLALL/ Lanbide heziketa eta bizitza osoan zeharreko prestakuntzarako Europako sarea.
- CINEREGIO: Eskualde eta Estatuen Ikus-entzunezkoen Funtsa
- PLATFORMA: Tokiko eta eskualdeko agintarien garapenerako lankidetzaren Europako plataforma.
- CONCORD: Garapenerako lankidetzako GKE-en Europako plataforma.
- CGLU

- Unibertsitateen Europako Elkartea
- Creative Europe MEDIA Desk Euskadi
- Europako Gazteriaren Foroa

**7. ERANSKINA EUROPAKO BATZORDEARI 2016AN
JAKINARAZITAKO/KOMUNIKATUTAKO LAGUNTZAK**

NEKAZARITZA/ARRANTZA

- Nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreetan ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako 2016ko laguntzak (Kategorien arabera Salbuespenen Erregelamendu Orokorra –KSEO– komunikazioa; salbuespenezko araudia).
- Indiako Ozeanoan jarduten duten atunketarien segurtasuna bermatzeko laguntzak (jakinarazpena).

INDUSTRIA

- I+G+b finantzatzeko, energia eraginkortasun eta energia garbietan inbertitzeko eta zientzian eta teknologian inbertitzeko laguntzen programa (KSEO komunikazioa)
- Enpresa poligonoetan banda zabala hedatzeko laguntzen programa (KSEO komunikazioa).
- Basque Industry 4.0: I+G-ko Teknologiaren Transferentzia fabrikazio aurreratuari aplikatutako EIKT programa (KSEO komunikazioa).
- Eraikin publikoetan energia eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko laguntzen programa (KSEO komunikazioa).
- Industria sektorean energia eraginkortasunean inbertsioak egiteko laguntzen programa (KSEO komunikazioa).
- Instalazio geotermikoetan inbertsioak egiteko laguntzen programa (KSEO komunikazioa).
- Biomasan inbertsioak egiteko laguntzen programa (KSEO komunikazioa).
- Hirugarren sektorean energia eraginkortasunean inbertsioak egiteko laguntzen programa (KSEO komunikazioa).
- Energia berriztagarri elektrikoetan inbertsioak egiteko laguntzen programa (KSEO komunikazioa).
- SA.44144 (2016/PN) laguntza, Gauzatu - Kanpo Ezarpenak (jakinarazpena).
- Gauzatu Industria programa (KSEO komunikazioa).
- Hazitek 2016 Enpresa I+G babesteko programa (KSEO komunikazioa).
- Elkartek 2016 Arlo Estrategikoetan Lankidetzaren Ikerketa egiteko laguntzak (KSEO komunikazioa).

- Euskadin ETEak berregituratzeko laguntza erregimena luzatzea eta aldatzea (Bideratu) (jakinarazpena).
- Kluster elkartetarako laguntzak (KSEO komunikazioa).

EKONOMIA ETA OGASUNA

- Lurreko telebista digitala hedatzeko laguntza. LTD erabakia gauzatzea. Erabakiaren gauzatze prozesuari jarraipena egin zaio, bai eta Europako Batzordearen Erabakiaren aurka EBJAren aurrean jarritako errekurtsioari ere.

INGURUMENA

- 2016an ekoberrikuntza proiektua egiteko laguntzak (KSEO komunikazioa)

KULTURA

- Literatur editorialaren ekoizpenerako laguntzak (KSEO komunikazioa).
- Ikus-entzunezkoen ekoizpenerako laguntzak (KSEO komunikazioa).
- Gaztelaniazko egunkarietan euskara erabiltzeko laguntzak (jakinarazpena).
- Gizartean euskara sustatzeko, hedatzeko eta/edo normalizatzeko laguntzak - Euskalgintza (KSEO komunikazioa).

HEZKUNTZA

- Gestamp Technology Institute (GTI) zentroaren aldeko 2016ko laguntza (KSEO komunikazioa).

BANAKAKO LAGUNTZAK

- SA.29769 laguntza, futbol klubak, BFA (espedientea ixtea).
- SA.37199 laguntza, Athletic Club Bilbaori eman dakiokeen laguntza (espedientea ixtea).

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

- Laguntza ekoizpen zinematografikoetarako eta ikus-entzunezko ekoizpenetarako sozietateen gaineko zergaren kuota likidoa kenduz (jakinarazpena).